

V. GERRIKO
IKERLAN-SARIKETA

Goiherriko Euskal Eskola
Maizpide Euskaltegia
Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea

«Sasieta Mankomunitatea.
Zabortegei kontrolatua»

Garai Arruabarrena Arruabarrena



INDUSTRI, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
AGRICULTURA Y PESCA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco


Vitoria-Gasteiz, 1995

GERRIKO IKERLAN-SARIKETA

- © Sortzailea: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea
- Antolatzaileak:
- Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea
Elosegi, 16, 1. ezker. 20210-Lazkao
Tfnoa.: 16 02 82
 - Maizpide Euskaltegia
Elosegi, 40-bis. 20210-Lazkao
Tfnoa.: 88 92 31
 - Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea
Euskadi Enparantza, z/g. 20210-Lazkao
Tfnoa.: 88 64 08
- Dinamizatzailea: Mari Joxe Madariaga Irastortza (G.E.E.)
- Zuzendari Teknikoa: Joxemartin Apalategi Begiristain
Antropologia Soziala eta Euskal Kultura Garaikide eta
Konparatuaren Antropologo eta Irakaslea (E.H.U.)
- Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz
- Egilea: Garai Arruabarrena Arruabarrena
- Azala: Galarraga Urteaga, Amaia
- Fotokonposaketa: Didot, S.A.
Nerbioi kalea, 3-6. 48001-Bilbo
- Inprimategia: Boan, S.A.
Aita Larramendi, 2-beh. 48012-Bilbo
- I.S.B.N.: 84-457-0568-7
L.G.: BI-418-95

JOSE INAZIO GERRIKO (1740-1824)

Seguran (Gipuzkoan) jaioa. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, *Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctrinetan partituric*, bera hil ondoren argitaratu zen (1858an). Liburuaren aurkezpenean esaten denez, argitaratzeko baimena eman ahal izateko, espainierazko itzulpena eskatzen zioten...



XIX. mendeko Segurako bista.

Joxe Mari Telleria Lezetak 1985ean Lardizabal etxeko koadro bati ateratako argazkia.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	9
SASIETA MANKOMUNITATEA. ZABORTEGI KONTROLATUA	11
Hitzaurrea	13
Sarrera	15
1. zatia. Sasieta zaborteziaren sorrera	19
I. Sasieta zaborteziaren sorrera	19
II. Sasieta zaborteziaren eraikuntza	21
III. Suntsiketa prozesuaren urratsak	26
A. Zaborbilketa zerbitzuaren hedapena	31
B. Hondakin hiritar solidoen jaurtiketak	33
2. zatia. Bilketa hautatua eta berziklapenerako egitasmoa	41
I. Bilketa hautatua eta berziklapena	41
II. Ingurugiro-hezkuntza	43
III. Bilketa hautatuaren bideragarritasuna	45
A. Berziklapenaren ezagupena eta beroni buruzko balorazioa	45
B. Berziklapena aurrera eramateko zailtasunak eta hiritarrek eman dezaketen laguntzaren somaketa	45
C. Egungo portaerak eta proiektuari laguntza emateko dauden igurrikapen pertsonalak	46
IV. Beira bilketa hautatua	46
A. Txiki-txiki egindako beiraren berreskurapena	47
B. Itzultzeko ontzien berreskurapena	49
V. Paper bilketa hautatua	51
A. Europa eta EEBBetako bilketa hautatu eta berziklapen esperientziak	52
B. EEEren hondakinekiko estrategia	54
C. Paper berziklapenaren egungo egoera Goierrin	55
D. Sasieta Mankomunitatearen paper bilketarako sistema	56
E. Atez-ateko bilketa sistema eta edukinontzien sistemaren arteko konparaketa	61

VI. Etxetako hondakin arriskutsuen bilketa	63
VII. Pila bilketa hautatua	64
A. Botoi-pilen bilketa hautatua	65
VIII. Automoziarako olioen bilketa hautatua	67
A. Automoziarako olioen problema	67
B. Erabilitako olioen bilketa	67
IX. Jantzi eta trapu bilketa hautatua	70
X. Altzari eta etxetako zenbait tresnaren probetxamendua	71
XI. Botika bilketa hautatua	73
3. zatia. Sasieta Mankomunitatea	75
I. Zabortegiaren kudeaketarako Mankomunitatearen sorrera	75
II. Sasieta Mankomunitatearen estatutuak	76
A. Mankomunitatea eta Udalen barne funtzionamenduaren konparaketa	78
4. zatia. Sasieta zabortegiak emandako zerbitzuen kostua	81
I. Sasieta Mankomunitatearen zerbitzuen kostu-banaketa	81
Ondorioak	85
Bibliografia	87

HITZAURREA

1989an urratutako bideak kilometro batzuk baditu jada: bost urte, sei sari-keta, bederatzi liburu, hamaika lan argitaratu, dozena bat ikerlari eta mila poz, zorion eta txalo!

V. Gerriko Ikerlan-Sariketarako deia 1993ko udazkenean luzatu genuen, 1994ko udaberrian hiru lan jaso genituen eta 1995eko udaberri honetan bi lan sarituekin bi liburu aurkezten dizkizuegu. Uda eta negu parteko lan isilak, udaberrian lortu du fruitua.

Sariketara aurkeztutako lanak eta egileak honako hauek izan ziren:

— *Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera (1858)*

Pello Joxe Aranburu

Marian Bidegain

Antton Idiakez

Iñaki Rezola

— *Ezkioko ilunpean argi printzak*

Jabier Otermin

Iñaki Bastarrika

— *Sasieta Mankomunitatea. Zabortege kontrolatua*

Garai Arruabarrena

Joxemartin Apalategi Begiristain sariketako Zientziazko Zuzendariaren laguntzarekin ikerlanen gai ei zegokien arloko eta neurriko epaimahaia aukeratu genuen:

— Miren Azkarate, hizkuntzalaritzan ikerlaria, euskaltzaina, irakasle eta Euskararako Dekanordea (Donostiako EHUko Gipuzkoako Campuseko Filosofi eta Hezkuntz Zientzien Fakultatean).

— Balere Bakaikoa, Ekonomia Aplikatuaren Zuzenbidean ikerlaria, Udako Euskal Unibertsitateko Errektore ohia eta Donostiako Euskal Herriko Unibertsitateko Gipuzkoako Campuseko Zuzenbide Fakultateko irakaslea.

— Xipri Arbelbide, Etnohistorian ikerlaria, Gure Irratia eta Egunkariako kazetaria eta irakaslea.

Epaimahaiaren erabakia hauxe izan zen:

1. Lehenengo saria *Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera (1858)* lanari ematea.

2. Bigarren saria hutsik uztea.

3. Hirugarren saria *Sasieta Mankomunitatea. Zabortegei kontrolatua* lanari ematea.

Epaimahaikideek argitaragarritzat jo zituzten bi lan sarituak eta dirutan ematen den sariaz gain Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailari esker eskuartearen dituzu, irakurle, bi lanak, bakoitza liburu batean.

Saritu gabe geratu den lanaren ikerleak ere zoriondu behar ditugu, egin duten lana handia izan baita, nahiz eta sariketa honetan baloratzen dena kontuan izanda saritu gabe uztea erabaki epaimahaiak. Eskerrak beraz egindakoagatik zuei ere Iñaki eta Jabier eta etsi gabe ekin ikerle afizio eta ofizioari!

Goierri buruz oraindik ikertzeke dagoen hainbat gai, edozein dela ere, gustora jasotzen badugu, poz berezia eman digu geure ikerlan-sariketari izena ematen dion idazlearen bizi eta obra biltzen dituen lanak, Jose Inazio Gerriko Enatarriagari buruzkoak hain zuzen ere.

Bildumako lehen liburuko hitzaurrean zera idazten genuen: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek... «1989ko irailean egoki eritzi zion Jose Inazio Gerriko, Goierriko (Segurako) idazlearen omenez I. Gerriko Idazlan-Sariketa sortzeari eta sortu ere Goierriko gaiez ikerketa-lanak eskuratu eta argitaratzeko asmoz...»

Sariketari bere izena emanez Gerriko omendu nahi bagenuen, segurar idazlearen merituen berri bagenekielako izan zen, dudarik gabe. Baina ikerle-laukoteak, sariketarako prestatu eta epaimahaiak lehenengo saria eman badie, antolatzaileoi lehendabizi eta irakurle guztiei ondoren, informazio-iturri ziur eta aberatsa eskuratu digute. Jada lehen baino askoz gehiago jakin dezakegu geure sariketari izena ematen dion segurar idazle klasikoaren berri.

Aldi berean asko poztu gaitu hirugarren saria jaso duen Garaik, bere lana Goierri Eskualdeko Sasieta mankomunitateari buruz egin izanak. Hondakinena den bezain gai zaharrak, teknologia eta teknika zahar eta berrienekin ingurunea txukuntzeko eta ekologi arloa garatuz zenbait etekin ere ateratzeko bidea urratzen hasi den honetan, oso baliagarria da norbaitek gai horri ere heldu izana. Antzinako goierritarren historia eta gorabeheren alboan, ongi-etorria egun-egungoei ere.

Zorionak eta eskerrak eman nahi genizkizueke modu batera ala bestera V. Gerriko Ikerlan-Sariketa honen antolaketa-lanetatik hasi eta liburuak argitaratu bitartean lagundu gaituzuen guztioi: ikerleoi, epaimahaikideoi, Zientziazko Zuzendariari, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailari, Kutxa Fundazioari, Euskadiko Kutxari, GEE Kultur Elkarteko Bazkideei eta Lazkaoko Udalari eta herritarrei.

Lazkao, 1994ko abendua

ANDONI SARRIEGI ESKISABEL
GEE Kultur Elkarteko Lehendakaria

LURDES AMUNDARAIN AIESTARAN
Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria

JOAN FELIPE BARANDIARAN GARMENDIA
Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordeburua

SASIETA MANKOMUNITATEA ZABORTEGI KONTROLATUA

Garai Arruabarrena Arruabarrena



HITZAURREA

Nere ikasketak zirela medio, Sasieta mankomunitatearen sorrerari buruz lan bat prestatu nuen. Nik lan hau egin nuenean, Sasieta mankomunitatea sortu berria zen eta egia esateko, bere bizitzari buruz zerbait gehiago jakiteko harra sartu zitzaidan.

Baina V. Gerriko Ikerlan-Sariketaren berri izan nuenean, ez zitzaidan burutik pasa ere egin aurkeztea. Lagun batek izan du guzti honen errua, berak animatu baininduen lan hau prestatzen hasiera.

Horrela, sariketa honi begira hasi nintzen zerbait egiten. Hasieran nik uste baino interesgarriagoa gertatu zait azterlan hau, neretzako oso baikorra aldi berean.

Lan hau ez zatekeen egin ahal izango inguruko guztien laguntzarik gabe, beraz eskerrak eman nahi nizkieke zabortegiko ingurugiro-teknikari diren Ana Juaristi eta Octavio Oreazabali eta kudeatzaile zerbitzu burua den Iñaki Erauskini.

Ataunen, 1994ko Martxoaren 30ean


SARRERA

Gauza jakina da gure gizartearen ongizate-mailaren hobetzeari lotuta dato-rrera hondakin-produkzioaren geldiezinezko gorakada «per-kapita». Produktu gehienetan estalkien garrantzia nabarmenki igo da nahiz eta askotan edukinaren kaltetan izan.

Merkatalgune handietan aurrez prestatutako produktuen salmentek izan duten gorakadak, enbalaien izugarrizko hazkuntza ekarri du. Enbalaia hauek era guztietakoak izan ohi dira, plastikozkoak, beirazkoak, etab. baina guztiek ere azkenean zaborrontzian amaitzen dute beren ibilbidea.

Garbi dago zabor hauek guztiak kontrolik gabe biltzea, gizakiarentzat eta ingurunearentzat izugarrizko mehatxua izango litzatekela. Hala eta guztiz ere, zoritxarrez, nahikoa normala da edozein motatako zaborrak gutxienezko baldintzak betetzen ez dituzten zabortegietan biltzea eta ondorioz horiek izaten dira kutsadura guneen sortzaile garrantzitsuenetakoak.

Goierrri eta Urola Garaia eskualdeko 22 udalerrietan bizi garenok zorionez Sasieta izeneko zabortegi kontrolatu bat badugu geure zerbitzura. Zabortegi hori Beasaingo Salbatore auzoan kokatua dago, G-6322 errepidearen ondoan.



Beasaingo Salbatore auzoan,
G-6322 errepidearen ondoan.

Egun, eskualdearen esparruan mankomunitatean gestionatzen den zerbitzu bakarrenetakoa izateak, garai bateko gestio-metodoen aldaketa sakona ekarri du. Aldaketa horiek, bai herritarrentzako agerian dauden azaleko arloetan eta baita barne-antolaketan ere antzematen dira. Zerbitzuaren gestio bateratuak, besteak beste, honako helburu hauek ditu:

- a. Zerbitzuaren estaldura handitu, hiriguneetatik urrun dauden auzoetara ere helduz.
- b. Bilketa zentzuz diseinatu, udalerrien arteko «mugen» desagerketa probetxatuz. Baliabide pertsonalak eta materialak hobeto antolatu, baliabideen erabilpen bikoitza edota murriztua ekidinez.
- d. Zerbitzuen kalitatea handitu, betebeharrei teknikoki egokitutako baliabide material isilak erabiliz eta zerbitzu berriak eta hobetoak eskainiz.

Zerbitzu guzti hau aurrera eramateko «*FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A.*» enpresari eman zitzaion ardura, Sasieta mankomunitateak, baldintza egokienak eskaintzen zituen enpresa bera zela uste izan zuelako. Bere eginkizunak bete ahal izateko FCC-k 22 langile eta baliabide mekaniko ugari ditu.

Baina Sasieta mankomunitateko arduradunek oso garbi daukate zaborrekin batera bota ohi ditugun material mota desberdinak bereiztuko bagenitu, produktu hauetako askoren berziklapena erraztu egingo litzatekeela eta aldi berean, zaborren bilketa eta tratamendua merkeagoa izango litzatekeela.

Sasieta zabortegearen gestiorako sortu nahi zen Mankomunitatearen estatuak egiterakoan, egitasmo garrantzitsu hau aurrakusi zenez, estatutuen *Xedapen Gehigarriaren laugarren atalean*, beste bilketa eta tratamendu-sistema batzuk martxan jartzeko ahalbidea ere onartzen da.

Hau kontutan harturik, Sasieta mankomunitateak «*Bilketa-hautatua eta berziklapen-egitasmoa*» prestatu ditu eta besteak beste, beira, papera eta kartoia, plastikoa, ehunak, pilak, botikak, erabilitako olioak, etab. barnebiltzen ditu.



Lizarrusti gaineko ezkutuko zabortegei bat.

Zabortegiko arduradunek zerbitzu guzti hauek eskaini arren, herritarren eskuetan dago helburu hauek ahal den modu egokinean betetzea eta zoritxarrez errealitateak erakusten digu oraindik herritarren artean ez dela hartzen behar adinako ardurarik gai hauetaz. Ezin da ukatu oraindik ere ezkutuko zabortegeiek hor jarraitzen dutela. Zehazki, 41 ezkutuko zabortegei ezagutzen dira Goierrin.

Hala eta guztiz ere, badirudi pixkanaka-pixkanaka, herritarrengan nolabaiteko kontzientzi ekologikoa eta ingurunearekiko begirunea sortzen ari dela. Honetan, eragin handia izan du, hondamen ekologiko larriei buruz, komunikabideetan lau haizetara zabaldutako informazioak eta norberaren inguruneak geroz eta kalte gehiago jasaten dituela antzemateak.

Eskualdeko zabortegei kontrolatuaren funtzionamendua berria da. Baina zabor bilketak aspaldidanik egiten ziren eta zoritxarrez, nahiz eta zaborren bilketaren ardura udalena izan eta udalek borondate handienarekin jokatu, kontrolik gabe egiten zen.

Baina badugu datu pozgarri bat, kontrolik gabeko zabortege horietako zenbaitzuk jadanik berreskuratuta daude. Hau da Zumarragakoaren eta Itsasondoakoaren kasua eta baita ere Legorretakoarena eta Lazkaokoarena. Idiazabalgoaren berreskuratze lanei, aurtengo urtean eman zaie hasiera, 1994ko otsailaren 1ean hain zuzen ere. Honekin emango zaio amaiera antzinako kontrolik gabeko zabortege horien berreskuraketari.

1. ZATIA - SASIETA ZABORTEGIAREN SORRERA

I. Sasieta zaborteziaren sorrera

Gipuzkoako Foru Diputazioak, eskualde desberdinetako zaborteziaren egoera kaxkarra ikusi ondoren, herrialderako nolabaiteko egitasmo bat prestatzea erabaki zuen, egoera horri irtenbide bat eman ahal izateko.

Hori kontuan harturik, Foru Diputazioak, «Egitasmo Nagusia» deritzona egin zuen. Egitasmo horren edukina, herrialde osorako «zabor eta hondakinen bilketa, garraio, tratamendu eta desegiteko» sistemen azterketa izan zen.

1983ko martxoaren 3an, Diputazioan bilera bat egin zen eta bertan Udalerrietako ordezkariak, «Ingenieria de Residuos Sólidos S.A.» (IRSSA) izeneko kontsultategiak idatzitako egitasmoa aurkeztu zitzairen. Azterlan horretan, eskualdeen antolaketan oinarritu ziren, zaborteziak eraikitzeke proiektuak egite-rakoan.

Bilera horretan, Egitasmoaren edukina argitu ondoren, proiektuak martxan jarri ahal izateke beharrezkoak ziren pausoak ematea erabaki zen:

1. Aukera desberdinen artean hautatu ahal izateke, erabakiak hasiera batean eskualde bakoitzeke udalek hartu behar izan zituzten. Erabakiak hartu ondoren, Diputazioari jakinarazi zitzaizkion, hark erantzun guztiak kontuan hartuta, behin-betike egitasmoa egin ahal izan zezan. Ahal bazen, probintzia osorako ebazpide koordinatua lortzea zen egitasmoaren helburuetake bat.
2. Egin beharreke inbertsioak, Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioak diruz lagunduak izan ziren, egitasmoaren arau teknikoak kontuan edukitzeke baldintzarekin.
3. Udalerri bakoitzak bere erabakiak hartu ahal izateke, Diputazioke teknikarien laguntza eta IRSSA kontsultategiaren aholkularitza izan zituzten uneoro.
4. Hilabeteke epean, Udalerri bakoitzak lehenatasuna zein erabakiri ematen zion adierazi behar zuen. Zehazki, Goierri Eskualderake sei aukera prestatu zituen egitasmo hark.

Diputazioan egindake bileraren ondoren, eskualdeke herrietake ordezkarien bilera bat egin zen Ordizian. Bertan, eskualdearen interesentake komenigarriena zen aukera bat hautatzen saiatu ziren.

Proposaturiko 6 aukerak aztertu eta ondoren, 3 eta 5 zenbakidun proposamenak erabat baztertu ziren, hartzen zuten lur-eremu haundiegiagatik. Izan ere, bi aukera horietatik edozein ere praktikan jartzeak, garraio gastu handiak sortuko bait zituzkeen, zerbitzuaren prestakuntza izugarri garestituz.

Egitasmoak proposatzen zituen sei aukerak aztertu ondoren, Beasain ia denetan agertzen zela ikusi zen Zabortegi kontrolatuaren kokagune gisa.



Beasaingo Udaletxea.

Horren ondorioz, esan liteke, une hartatik aurrera Beasaingo Udalak hartu zuela, zabortegiaren proiektuari zegokion zamarik handiena.

Hori zela eta, Beasainen 1983ko martxoaren 4an egin zen udal-batzarrak, 1, 2, 4 eta 6 zenbakiekin izendaturikoen artean edozein aukeraren aldeko iritzia ematea erabaki zuen.

Erabaki hori, Foru Aldundiak horretarako izendaturiko batzordera igorri zuten aipaturiko horietatik edozein aukeraren berehalako kudeaketa eskatuz.

Diputazioak bere erantzuna eman ondoren, 1984ko abenduaren 13an, Beasaingo Udalak, osoko batzarraldian, proiektua onartu egin zuen. Proiektu horrek, 172.235.059 ptako aurrekontua zuen.

Eta horrela iritsi zen proiektua martxan jartzeko garaia. Beasaingo Udalak lehenengo hartu zuen erabakia, zabortegia kokatuta dagoen lekuko lurren jabetza lortzea izan zen. Horrek lehenengo, desjabetzen prozesua martxan jarri beharra ekarri zuen.

Guzti horrek diru-kopuru handien mugimendua suposatzen zuenez, Gipuzkoako Foru-Diputazioari, zenbait eskaera luzatu zitzaizkion:

- Zabortegiko obrak eta instalazioak bere osotasunean finantziatu ahal izateko kreditu bat izendatzeko hitza emateko eskaera.
- Diputazioak hitzeman zuen laguntza bere aurrekontuetan zehatz-mehatz izendatu zezala.

Baina normala den bezala, eskualdeko proiektu baten aurrean zeudenez, ez zen Diputazioaren laguntza bakarrik eskatuko, eskualdeko beste udalerrri guztiak

ere parte hartzera behartuak zeuden. Hori zela eta, Beasaingo Udalak, Goierri eta Urola Garaiko beste udalen bilkuretan, ondorengo akordioak onar zitzatela eskatu zuen:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako hondakin solidoen tratamendurako egitasmoari atxekitzea.
- Horri buruz Beasaingo Udalak harturiko erabakiak, berek ere onestea.
- Adierazitako izapideak jarraitzeko Beasaingo Udalarari ahalmena ematea.

Lurren erosketa-gastuak finantzatzeko, 1984ko martxoko biztanle-erroldako datuak erreferentzia moduan hartzea erabaki zen. Eta biztanle kopuruaren proportzioan egin zen lurren ordainketa.

II. Zabortegei kontrolatuaren eraikuntza

Herritar arruntak zabortegei hitz egiterakoan bere buruan egiten duen imajina zaborrez beteriko lur zatiarena besterik ez da, baina zorionez Zabortegei Kontrolatuaren kasuan errealitatea guztiz desberdina da.

Zabortegei bat eraiki aurretik, azterketa sakon bat egin beharko da, ingurunean sortuko diren kalteak harik eta txikienak izan daitezzen. Lurraren iragazkortasuna, inguruko herriekiko hurbiltasuna, klima, ...kontuan hartu beharreko faktoreak dira. Azterketaren ondoren, baldintza egokienak betetzen dituen onartzen da. Zabortegei kontrolatu baten helburua, ingurunean ahal duen eragin negatibo gutxiena sortzea da eta aldi berean, hondakin kopuru handiak harik eta espaziorik txikienean lurperatzea.



Sasieta Zabortegeia, goitik begiratuta.



Zabortegiaren beheko puntuko lixibatuen hodia.

Europar, Zabortegi kontrolatuen sistema da erabiliena, hiritar hondakin solidoak deusesteko, izan ere, hondakinak erabat desagertzea posible egiten baitu. Sistema honek eskaintzen duen beste abantaila, berziklapen-programak martxan jartzeko ahalbidea da.

Eraikuntzari dagokionez zabortegiak ez dira batere konplexuak, baina beti ere bere osotasunean injenierutzako obra baten moduan aztertu behar da eta honek, soluzio egokienaren aukeraketa egitea posible egiten duen proiektu zehatza eskatzen du, beraz ezusteko gertaerek ez dute lekurik Zabortegi kontrolatuen eraikuntzan.

Sasieta zabortegia Salvatore auzoan dagoen arro batean eraikia dago. Bertako lurzorua buztinezkoa da. Buztina lur mota egokia da iragazkaitza delako, ondorioz, zaborrek hartzitzerakoan sortzen duten ur zikina, hau da, lixibatua izenekoa, ezin da iragazi eta modu horretan lurpeko ur garbiak kutsatzea ekiditen da. Bertara Mankomunitate barnean dauden 22 udalerrietako biztanleen hiri hondakin solidoak jaurtitzen dira. Jaurtiketa-eremua, 24.200 m²-koa da guztira.

Arro batean kokatua egon arren, zabortegiak malda berezia dauka. Malda horrek posible egiten du, zaborren hartziduratik sortzen diren lixibatuak, hau da, ur zikinak, zabortegiaren beheko punturaino bideratzea, horretarako prestatuta dagoen hodi baten bidez.

Bestalde, euria egiten duenean, zaborren gainera isurtzen den ura, ur zikin bihurtzen da. Ur horiek ere, zabortegi osoa zeharkatzen duen lixibatuen hodi berean, beheko punturaino etortzen dira. Hodi hori, lurrazpitik datorrenez ez da ikusten ibilbide gehienez, errepidea zeharkatuz biltegiara iristerakoan ezik.

Biltegi horretako lixibatuak, hilean bitan analisatu egiten dira, substantzia kutsagarriren bat sartu den ala ez jakiteko. Ondoren, kamioi zisterna batean, Durangora eramaten dira. Durangon, ur hauek garbitzeko sistema egokia daukate.

Menditik datorren ur garbia, berriz, zabortegia baina gorago dagoen puntu batean, kanal perimetralaren bidez desbideratu egiten da. Horrela, ur horiek menditik errekaraino garbiak etortzen dira. Kanal horrek Eztanda errekan du bukaera.

Seguraski, goierritar batek baino gehiagok ezagutuko du ingurune hori eta beren buruei galdetu ere egingo diete, zer gertatu ote den arro hori zeharkatzen zuen errekatxoarekin. Errekatxo horrek, zabortegiaren eremu osoa hodi handi batean sartuta igarotzen du. Horrek puntu batean kanal perimetralarekin bat egiten du eta ur horiek ere ur garbien hodian heltzen dira Eztanda ibairaino.

Eraikuntza guzti horiek egin ondoren, jaurtiketei ekin aurretik, behar beharrezkoa da, azken urrats garrantzitsu bat ematea.


Aurreago aipatu dugun bezala, Sasieta Zabortegia arro batean kokatua dago. Zokogune hori, behetik gorantz ari dira betetzen, malda berezi bat eginez. Jaurtiketak egin aurretik, lur eremua prestatu egin behar da. Prestakuntza, lur eremu osoa txikiagoetan zatitzean datza.

Suntsiketak ez dira egiten jaurtiketa eremu osoan. Lur eremu txikiago bat hartu eta dena harriz inguratzen da. Aldi berean, zati hori txikiagoetan zatitzen da, horretarako ere harriak erabiliz. Horren arrazoia, zaborrak deskonposatzerakoan gasak sortzean datza, gehienbat metano gasa.


Metanoa (CH₄), kopuru txikietan ez da arriskutsua, baina lurpean metanopoltsak egingo balira, leherketa eta sute arriskua legoke. Zabortegiaren lurzorua, buztinezkoa da. Lur mota hori iragazkaitza denez, bertatik gasak ez luke irten-



Lixibatuak garraiatzeko hodia.



Ur garbia daraman kanal-perimetrala.



Sasieta Zabortegia.



Sasieta Zabortegiaren jaurtiketa-eremua.

biderik izango. Arazo hori nolabait neutralizatzeko, tximinia antzeko hodi berezi batzuk ezartzen dira harrien gurutzabideetan. Zabortegiaren malda bereziari esker, harrien hutsuneetatik tximinietaraino bideratzen da gasa.



Jaurtiketa-guneko burdinezko tximinia.


Geruza bakoitza bete ondoren, kanpoan ikusiko den gauza bakarra, burdinazko tximinia labur bat besterik ez da izango. Tximinia hori, zabor geruzak osatzen doazen heinean, azpian jartzen diren harriekin batera altxatzen joaten da aldi berean, tximiniaren barnean doan polietilenoazko tutua inguratuz. Tutu honek zulo batzuk ditu eta harrien hutsuneak zeharkatuz, zulo horietatik tximiniaraino bideratzen da gasa.

Metanoa tximiniaren puntaraino iritsi ondoren, tximinia hauei estalki berezi batzuk jartzen zaizkie eta su eman. Metanoa (CH_4) erretzen denean, anhidrido karboniko (CO_2), bihurtzen da eta hau ez da inoiz ere kutsagarria izaten.

Metanoa, Biogasa bezala ere ezagutzen dena, energia iturri gisa probetxagarria izan liteke. Une honetan, Sasietan sortzen den metanoa baliozkoa den ala ez jakiteko zenbait azterketa egiten ari dira.

Urrats hauek guztiak eman ondoren jaurtiketak egiten hasteko prest dago zabortegia.

III. Suntsiketa prozesuaren urratsak



Zaborrak, Z/B puntuetatik nahiz edukinontzietatik, kamioi trinkotzailleen bidez biltzen dira. Kamioi hauetan, zaborra txiki-txiki egiten da. Zabortegiaren isurketa eremura garraiatzen den hondakin kopuru handiena, mota honetako kamioietan iristen da.

Zabortegiaren behe aldean dauden bulegoetan, baskula dago. Isurketa eremura igo aurretik, hondakinez betetako kamioi guztiak bertan pisatzen dira. Leku horretatik igaro gabe, ezin izango da inor sartu zabortegira. Hemen, zaborrak pisatzeaz gain, ibilgailua identifikatzen da. Ez dugu ahaztu behar, partikularrek ere zabortegirako sarrera baimenduta daukatela.

Aurrera jarraitu nahi duenak, derrigorrezkoa du baskulako arduradunari zenbait datu ematea. Pisatzeko erabiltzen den makina honek, pisuaz gain beste zenbait datu interesgarri ere ematen ditu. Baskulako arduradunak, datu guzti horiek or-



Kamioi trinkotzailea edukinontzietatik zaborrak biltzen.



Kamioi trinkotzailea baskulan.

denadorean sartzen ditu. Horrela jakin ahal izango da, zenbat hondakin isuri den dagoeneko zabortegian eta isuritakoa zein motatakoa den. Tresna honek ematen dituen datuak honako hauek dira:

- Matrikula.
- Agiri-zenbakia.
- Data.

- Irteera-ordua.
- Hondakin-mota.
- Nongoa.
- Pisu gordina.
- Tara edo kamioiaren pisua.
- Pisu garbia.



Baskula.

Guzti hau egin ondoren, isurketa-eremura garraiatzen dira hondakinak eta bertan, momentu horretan betetzen ari diren zatian isurtzen dira.

Hondakinak deskargatu eta gero trinkagailuak zabor guztiak zabaldu eta bere gurpiletan dituen iltzeen bidez trinkotu egiten ditu eta metro bateko zabor geruzak egiten dira. Metro beteko geruza hori osatu ondoren 15 zm-ko zepa-geruza bidez estaltzen da. Galdategietako zepa material inerteza da eta modu horretan karraskariak eta intsektuak, inguratzea eta usain txarrak eta hondakinak barreiatzea ekiditen da. Material hau erabiltzearekin, Aristraineko zepei nolabaiteko irten-



Isurketa-eremuan zaborren jaurtiketa.



Trinkogailua zaborrak zabaltzen eta trinkotzen.

bidea ematen zaie eta bestetik lurra baino txukunagoa da, euria egiten duenean, ez ditu inguruak hainbeste zikintzen eta.

Zaborrak estaliz, lortu nahi den altuerara iristean, lur gozoko geruza batez estaltzen da dena. Ondoren, belar hazia ereiten da eta zuhaitz mota desberdinak landatzen dira.

Zabortegei batzuetan, oso agerian gelditzen direnez, berreskuratzerakoan, pinua landatzen dute lehenbailehen «estaltzeko».

Arlo honetan, zabortegei honek duen abantailetakoa bat zera da, oso izkutuan gelditzen dela. Hori dela eta, hazten denbora gehiago behar duten zuhaitzak landatzeko aukera dago. Baldintza hau kontuan hartuz, hemen, bertako zuhaitz

landareak ari dira landatzen, urte batzuk goitik behetik, zelaia berdin estalita geldituko baita.

Zaborra garraiatzen duten ibilgailuek, ezinbesteko betebeharra dute, beren gurpilak bidearen bukaeran dagoen putzu berezi batean garbitzea . Hain neurri sinpleak, ingurunea itxura onean mantentzen asko laguntzen du. Zaborte-gira heltzerakoan normalean ez dira asko zikintzen kamioien gurpilak, hala eta guztiz ere garbituko ez balituzte, errepidea zepa hondarrez zikinduta utziko lukete eta zaborte-giak lehenengo begiradan, itxura zaborra eskainiko luke. Beraz, ahal den neurrian kanpoko itxura zaintzea ere komenigarria denez, hori oso ideia polita dela esan liteke.



Gurpilak garbitzeko lekua.

A. Zabor Bilketa Zerbitzuaren Hedapena

Sasieta zabortegi mankomunatuak Goierri eta Urola Garaia eskualdeko 22 udalerrietan bizi diren ia 68.000 biztanleei eskaintzen dizkie bere zerbitzuak. Bere helburu nagusia zaborren bilketa eta tratamendu zerbitzua ematea da. Hala ere ez dugu alde batera utzi behar «Bilketa hautatu eta berziklapenaren» iharduera, gai interesgarria eta aldi berean oso garrantzitsua baita egun bizi garen gizartean.

Eskualdeko Sasieta Zabortegia, edozein berziklapen programa aplikatuta ere, ezinbesteko osagarria da. Zabortegia, berrerabilgarriak ez diren materialak, berziklapen enpresetan sortutako ondarrak eta bererabilgarriak izan arren, herritarrek bereizten ez dituzten bestelako materialak tratatzeko sistema da.

Beraz, etxetako hondakinen artean dauden lehengaien berziklapena sustatzearen aldeko apostua egin nahi da, beste edozein tratamendu-sistemen aurrean lehentasun osoa emanaz, honela eskualdeko zabortegira doan zabor-kopurua ahalik eta txikiena izan dadin.

Zerbitzu hau amankomunean eskaintzeak bideragarri egiten du baliabide pertsonalez gain baliabide mekaniko gehiago izatea ere. Gaur egun, ondorengo baliabide mekaniko hauek ditu mankomunitateak:

— Zabor-bilketako kamioiak	4
— Erreserbako kamioiak	2
— Edukinontziak garbitzeko ekipoa	1
— Traste zaharrak biltzeko kamioia	1
— Toki anitzetako ibilgailua	1
— Edukinontziak	1.100 (*)



Traste zaharren bilketarako kamioia.

Datu hauek ikusi ondoren nere iritziz ondorio garbi bat nabarmentzen da. Goierri eskualdean, herri txiki asko dago eta gauza jakina da herri txiki gehien arazoa diru eskasia izaten dela, beraz oso zaila izango litzateke berentzat zabor-

(*) Edukinontzien kopurua aldakorra da, beharren arabera jarri edo kentzen direlako.

tegiak eskaintzen dituen zenbait zerbitzu eskaintzea. Adibidez, traste zaharrak biltzearena izango litzateke horietako bat. Ez lukete baliabide pertsonal eta mekanikorik beren esku izateko ahalbiderik izango.

Sasieta zabortegiaren eginkizun garrantzitsuena «Bilketa hautatua eta Berzi-klapena» izan arren, eskualdean ingurugiroaren defentsarako egin behar diren beste zenbait ekintza bultzatzen ere saiatzen da. Ekintza horietako bat eskualdeko «tximistorratz errediaktiboak» erretiratzearen aldeko kanpainan parte hartzea izan da.

ENRESAk (estatu mailako hondakin errediaktiboen enpresa), 1993ko urte bukaeran Goierriko tximistorratz errediaktiboak erretiratzeko asmoa azaldu zuen. Kanpaina txalogarria berau, nahiz eta zazpi urtetako atzerapenarekin iritsi.

Nahiz eta Estatuan aparailu horien inbentario zehatzik ez egon, da gutxi gorabehera 30.000 egongo direla jotzen da. Tximistorratz horien arriskua, beren buruetan datza *ameriziozkoak* (***) direlako.

Tximistorratzak normalean teilatuetan egoten direnez, arriskutsuak gertatuko lirateke lurrera erortzean. Tximistorratza lurrera iristen denean amerizio hori norbaitek irentsi dezake edo ukitu eta orduan izan liteke arriskutsua. Hala eta guztiz ere egokiagoa da aurretik badaezpada ere neurriak hartzea eta ez zerbait gertatu ondoren.



Ataungo J.M. Barandiaran Eskolako tximistorratza

Enpresa horretako teknikoen ardura, ameriziozko buru horiek kendu eta ondoren erreziklatu ahal izateko Britainia Handiko enpresa batera bidaltzea da. Zerbitzua, **Enresak** dohainik eskaintzen du. Tximistorratza beste batengatik ordezkatzeko jabearen esku gelditzen da. Noski, honek karga ekonomikoa ekarri arren, luzera sor daitezkeen kalteak ekiditeak konpentsatzen du gastu hori.

(***) amerizio: Gai erradiaktibo artifiziala, plutonioari neutroiak jaurtiz lortzen dena. Metal zuria da, zortzi isotopo dauzkana. 850 °C-tan urtzen da eta herdoildu egiten da airea ukitzean.

Sasieta-mankomunitateak, Diputazioaren eta Eguzki ekologi taldearen laguntzaz, eskualdeko tximistorratz erreadiaktiboen inbentarioa egin berria du. Orain, bere laguntza osoa emango du ahal den epe laburrenean tximistorratz hauek erretira daitezen. Inbentario horren arabera, Ataun, Beasain, Idiazabal, Itsasondo, Olaberria, Ormaiztegi, Segura eta Zumarragan, Tximistorratz erradiaktibo bana daude. Ordizian berriz lau eta azkenik, Urretxun bi.

B. Hondakin Solido Hiritarren Jaurtiketak

Zabortegei kontrolatua eraiki ondoren, herritar guztion eginkizuna da, bere iraupena ahal den gehiena luzatzea. Sasieta-ren bizi iraupena 19 urtekoa dela kalkulatzen da. Zabortegeiaren iraupena luzatzeko oinarririk garrantzitsuena, «bil-keta-hautatuan» dago, horrela lortuko baitugu bertan ahalik eta zaborrik gutxien jaurtitzea.

Hondakin hiritar solidoak, kaleetako edukinontzi berezietara edo zabor bil-keta puntuetara ateratzen dira. Hori noski, udalerrien arabera aldatu egiten da.



Zaborren edukinontziak.

Edukinontzi horien neurria litrotan neurtzen da. 240, 360, 800 eta 1.100 litroko edukinontziak daude eta horien, kopurua, neurriak eta kokapena erabakitzea, Sasieta Mankomunitateko zerbitzu teknikoei dagokie.

Sasieta zabortegeiko azkeneko datuek zabor kopuruaren gorakada azaltzen dute. 1993ko ekitaldian Sasietan 23.242 tona hondakin tratatu ziren. Horietatik %80 hondakin solido hiritarrak izan ziren (gehienbat etxeetakoak) eta hondakin solido inerteak %20 (obra eta industriatakoak).

Hondakin Solido Inerteak: -1993an Eskualdeko zabortegean, guztira 4.547 tona zabor obra eta industrietatik etorria jaso zen. Aurreko urtearekin konparatuta, honek %16,9ko gehikuntza suposatzen du, zehazki 3.890 tona.

Hondakin Solido Hiritarrak: -1993ko Urtariletik Abendura bitartean, 18.695 tonatako zabor jaurti ziren, 1992an denboraldi berdinean jaurtitakoa baino %3,34 gehiago (18.090 tona). Datu hauek isladatzen dute, batezbeste beste biztanleko 275 kg hondakin sortzen dugula.



Etxeetako zaborrak.

Nahiz eta bilketa hautatuak erantzun ona jaso herritarren aldetik argi dago, zabor kopuruak gorakada garrantzitsu samarra ezagutu duela. Beraz hondakinak isurtzeko garaian ere jaurtiketa pausoz pauso eta ahalik eta modu txukunenean egin beharko da zabor kopuru handiak leku txikian zabaldu ahalizateko.

Ondorengo orrialdeetan, datu horien islada diren zenbait datu taula agertzen da. Datu horien iturria Sasieta mankomunitatea izan da.

Hondakin solido hiritarrak (kg.)

Hilabetea	91-92 Urt.	92-93 Urt.	93-94 Urt.
Martxoa	(*) 698.117	1.478.060	1.679.340
Apirila	1.424.785	1.459.500	1.544.780
Maiatza	1.513.969	1.574.660	1.654.360
Ekaina	1.415.812	1.601.180	1.693.410
Uztaila	1.488.739	1.603.920	1.638.320
Abuztua	1.135.668	1.234.220	1.265.020
Iraila	1.509.430	1.571.100	1.620.100
Urria	1.535.280	1.653.020	
Azaroa	1.417.510	1.537.880	
Abendua	1.477.750	1.573.500	
Urtarrila	1.442.240	1.457.710	
Otsaila	1.360.800	1.332.440	
	16.420.100	18.077.190	

Datu iturria: Sasieta Mankomunitatea.


(*) Zumarraga, Urretxu, Legazpi eta Ezkio-Itsasok 1991ko apirilean hasi zituzten zabor-jaurtiketak.

Hondakin solido inerteak (kg.)

Hilabetea	91-92 Urt.	92-93 Urt.	93-94 Urt.
Martxoa	31.750	308.310	257.035
Apirila	20.280	172.795	173.140
Maiatza	72.800	324.595	495.590
Ekaina	50.515	373.785	333.655
Uztaila	95.430	303.225	583.340
Abuztua	43.595	272.375	370.015
Iraila	97.000	369.875	692.620
Urria	111.920	453.350	
Azaroa	609.755	321.840	
Abendua	97.640	241.340	
Urtarrila	282.250	275.660	
Otsaila	466.720	275.510	
	1.979.655	3.692.660	

Datu iturria: Sasieta Mankomunitatea.

Hondakin solido hirritarren tratamendua




Hileko batezbestekoa.

Legazpi, Zumarraga, Urretxu eta Ezkio-
- Itxasok, 1991ko apirilaren leian hasi zituzten jaurtiketak.

■ 1991. URTEA ■ 1992. URTEA

Datu iturria: Sasieta mankomunitatea.

Hondakin solido inerteen tratamendua



Hileko batezbestekoa.

Datu iturria: Sasieta mankomunitatea.

Bigarren urteko jaurtiketa - Datuak. Etxetako hondakinak (kg-tan) (Udaletako zabor-bilketa zerbitzuak)


Udalerria	Martxoa 1992	Apirila 1992	Maiatza 1992	Ekaina 1992
Altzaga	1.187	900	1.025	1.265
Arama	1.874	1.275	1.550	1.885
Ataun	23.160	23.700	22.560	25.040
Beasain	308.760	296.660	331.040	330.800
Ezkio-Itsaso	6.341	4.000	3.760	9.180
Gabiria	2.665	3.740	2.640	3.530
Gaintza	1.029	1.115	1.035	1.550
Idiazabal	37.980	40.220	44.200	42.640
Itsasondo	12.120	10.580	11.525	15.400
Lazkao	121.820	128.800	128.900	126.380
Legazpi	182.540	169.880	202.100	198.160
Legorreta	24.698	27.675	26.960	29.100
Mutiloa	4.041	3.585	4.210	4.600
Olaberria	41.820	40.700	43.420	42.760
Ordizia	225.730	233.480	241.680	241.380
Ormaiztegi	23.255	23.680	23.460	24.210
Segura	23.280	23.680	23.460	31.320
Urretxu	152.264	144.740	169.650	166.320
Zaldibia	24.642	27.775	29.185	30.110
Zegama	20.920	20.680	21.740	20.760
Zerain	4.959	4.075	5.090	5.620
Zumarraga	232.975	226.640	235.370	249.170
Guztira	1.478.060	1.459.500	1.574.660	1.601.180

Udalerrria	Uztaila 1992	Abuztua 1992	Iraila 1992	Urria 1992
Altzaga	995	905	1.415	1.000
Arama	1.570	1.430	2.085	1.745
Ataun	28.940	20.020	23.660	30.040
Beasain	308.420	240.000	320.460	336.320
Ezkio-Itsaso	3.860	2.190	3.635	4.120
Gabiria	4.800	4.875	4.190	4.030
Gaintza	1.320	1.245	1.750	1.735
Idiazabal	48.040	43.680	44.960	47.300
Itsasondo	16.675	12.335	13.010	14.160
Lazkao	135.480	92.920	132.480	136.280
Legazpi	193.580	121.900	184.020	192.060
Legorreta	28.960	21.865	26.230	28.400
Mutiloa	4.360	5.195	4.910	5.050
Olaberria	38.360	34.380	41.300	43.300
Ordizia	259.940	196.620	244.980	268.020
Ormaiztegi	27.040	23.225	25.570	24.290
Segura	24.260	32.380	27.600	24.680
Urretxu	166.565	109.800	157.855	172.470
Zaldibia	28.140	27.600	30.070	34.240
Zegama	23.540	33.480	21.840	22.460
Zerain	5.330	6.325	5.990	6.120
Zumarraga	253.715	199.830	253.090	255.130
Guztira	1.603.920	1.234.220	1.571.100	1.653.020

Udalerrria	Azaroa 1992	Abendua 1992	Urtarrila 1993	Otsaila 1993
Altzaga	1.125	955	1.165	960
Arama	1.705	1.470	1.810	1.455
Ataun	22.140	23.380	22.240	19.620
Beasain	314.560	340.180	305.300	278.360
Ezkio-Itsaso	5.160	3.255	3.620	3.520
Gabiria	4.560	3.745	2.865	3.490
Gaintza	1.450	1.260	1.530	1.260
Idiazabal	39.840	42.720	40.040	38.140
Itsasondo	11.420	12.540	14.795	12.075
Lazkao	129.260	117.420	116.520	105.320
Legazpi	194.300	200.820	176.300	167.940
Legorreta	26.660	23.855	23.555	21.670
Mutiloa	5.965	4.905	5.015	4.220
Olaberria	45.000	39.740	39.740	36.980
Ordizia	241.780	256.320	236.130	218.220
Ormaiztegi	27.480	26.475	24.715	19.150
Segura	25.040	22.940	21.580	20.080
Urretxu	155.270	168.740	149.030	131.560
Zaldibia	26.940	29.900	25.065	22.050
Zegama	23.260	18.140	21.380	19.000
Zerain	7.315	5.315	6.105	5.120
Zumarraga	227.650	229.625	219.210	202.260
Guztira	1.537.880	1.573.500	1.457.710	1.332.440

Datu iturria: Sasieta Mankomunitatea.

Hondakin solido hirritarren tratamendua



*Legazpi, Zumarraga, Urretxu eta Ezkio-
- Itxasok, 1991ko apirilaren leian hasi zituzten zabor-jaurtiketak.

Datu iturria: Sasieta mankomunitatea.

1993-1994 Ekitaldiko zabor-jaurtiketa

1993-94 Hilabeteak	Etxetako zaborrak						Azokak	Traste zaharrak	Hiidako animaliak	Guztira
	1. bidea	2. bidea	3. bidea	4. bidea	5. bidea	6. bidea				
Martxoa	370.680	346.700	392.740	261.850	240.740	15.480	1.628.190	18.400	3.990	1.679.340
Apirila	343.580	291.720	368.540	217.650	245.900	14.340	1.481.730	28.300	3.040	1.544.780
Maiatza	338.440	312.160	389.440	232.260	265.220	8.180	1.595.700	25.740	2.540	1.654.360
Ekaina	371.880	304.800	392.655	231.420	263.740	59.340	1.623.750	37.620	1.000	1.693.410
Uztaila	350.780	322.180	389.860	224.580	263.200	15.220	1.565.620	42.520	1.180	1.638.320
Abuztua	266.920	228.100	286.420	192.340	229.260	2.060	1.205.100	33.300	220	1.265.020
Iraila	349.180	303.160	378.520	256.060	234.220	23.140	1.544.280	49.860	1.520	1.620.100
Urria										
Azaroa										
Abendua										
Urtarrila										
Otsaila										

Datu iturria: Sasieta Mankomunitatea.

1. Bidea: Beasain, Lazkao.
2. Bidea: Ordizia, Lazkao, Zaldibia.
3. Bidea: Legazpi, Ormaiztegi, Ezkio-Itsaso.
4. Bidea: Legazpi, Ormaiztegi, Ezkio-Itsaso.
5. Bidea: Gainontzeko herriak.
6. Bidea: Beste zenbait H.H.S.

2. ZATIA - BILKETA HAUTATUA ETA BERZIKLAPENERAKO EGITASMOA

I. Bilketa hautatua eta berziklapena

Berziklaketa, «ezertarako balio ez duenari» erabilpen berria ematea besterik ez da. Egunkari, aldizkari, kartoi eta beste hainbat paper zaharrekin, koadernoekin etab. fabrika ditzakegu, arbola asko eta askoren bizia salbatuz. Botila eta beirazko ontzi zaharrekin ere, beirazko ontzi berriak fabrika ditzakegu, lehengaiak eta energia aurreztuz.

Berziklapenak, edonolakoa izanik ere, duen arazorik larriena, egungo kamioi trinkotzaileetan nahastuta eta trinkotuta heltzen den zabor multzo hori bereiztea da.



Kamioi-trinkotzailea.


Hondakin desberdinak ontzi berean nahastu, bilketako kamioietan sendoki trinkotu eta ondoren bereizteak, teknikoki zentzurik ez du.

Beraz, aukera bakarra, etxebizitzetan jatorrizko bilketa hautatua egitea da, hau da, etxean egiten den zaborretako zenbait osagaien bereizketa eta ondorengo bilketa hautatua, material hauek, azkenik berreskuratu ahal izateko.

Esan beharra dago gainera, aurrez bereizitako materialekin lortutako berziklapen errendimendua, hondakin gordinekin edota nahastutako materialekin egiten diren berziklapen prozesu desberdinetan lortutakoa baino askoz ere handiagoa dela, beti ere berreskuratutako produktuen kalitatea hobea izango dela ahaztu gabe.

Mankomunitateko Batzorde Errektoreak 1993ko maiatzaren 31n egindako ohizko batzarrean onartu zuen «Bilketa Hautatua eta Berziklaketarako» egitasmoa. Egitasmo hori Hiritar Hondakin Solidoen osotasunezko tratamendu sistemen atal bat bailitzan txertatuko da, Berziklaketa eta Jaurtiketa Kontrolatuko sistema mistoan alegia.

Ondorengo organigraman, *Bilketa Hautatua eta Berziklapen programa Mankomunitateko* barne antolaketan nola txertatuko den azaltzen da:



Bilketa Hautatuko sistema arrakastaz aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa da herritarren parte hartze gogotsu eta etengabea. Ez da txantxetako gauza etxebizitzetan sortutako hondakinak hautatu eta bereizteko ohitura hartzea.

Mankomunitateko arduradunek ez dute arazo hau alde batera utzi eta informazio eta kontzientziazio kanpainak antolatzeari ekin diote buru-belarri. Informazio eta Kontzientziazio kanpaina hau bi ikuspegitatik bideratu dute:

- Alde batetik, 1993-1994 ikasturtean zehar eskualdeko ikastetxeetan «Ingurugiro-hezkuntzari» buruzko ikastaroak antolatu dira.
- Bestetik, herritarrei zuzenduriko informazio eta kontzientziazio kanpaina dago.

Bilera informatibo hauen gehigarri bezala, Mankomunitateak etxe bakoitzera berziklaketa prozesuaren gida-liburu bat bidaliko du. Gida-liburu horretan azalduko da, zer den berziklatuko dena eta berziklatzeko materialak zein egunetan jasoko diren herri bakoitzean.

II. Ingurugiro hezkuntza

Ingurugiroaren arazoen azterketaz arduratzen diren erakunde desberdinen aholkuak kontuan hartuz, Sasieta mankomunitateak Goierriko ikastetxeetan Ingurugiro-hezkuntza dela eta burututako kanpainaren bidez, ikasleek inguruneari zor dioten begirunea eta berau hobetzeko duten erantzukizuna indartu nahi izan du.

Ingurugiro-hezkuntzari dagokionez bi lantalde bereizi dira:

1. *Ikastetxetako irakasleen lantaldea.*
2. *Eskualdeko ikasleen lantaldea.*

1. *Ikastetxetako irakasleen lantaldea*

Bere helburua irakasleak informatu eta kontzientziatzea da. Aldi berean, beren esku jarriko dira baliabide guztiak, gero ikas geletan Ingurugiro-hezkuntzari nolabaiteko jarraipena eman ahal izateko.

Ez dugu ahaztu behar, irakaskuntzako profesionalak hezkuntza arloan helburu bat lortu ahal izateko, funtsezko elementuak direla.

Zentzu honetan, Legazpiko «*Ingurugiro Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia*» (IIHII), ingurugiro-heziketa aurrera eramateko laguntza tresna izango da.

Irakasleek, IIHIIIn, ikasleak ingurugiro arloko arazoez sensibilizatzeko eta hezteko materiala aurkituko dute. Bestalde, zentzu honetan, irakaslegoa ingurugiro arloan prestatzeko programa bereziak antolatzen dira.

2. *Bigarren lantaldea, eskualdeko ikasleek osatzen dute*

Kanpainak bereziki, OHOk 27 ikastetxe, BBB eta UBiko 11, Lanbide hezkuntzako 2 eta Helduen hezkuntzako (H.H.I) 5 ikastegi ditu helburutzat.

Ingurugiro heziketaren programa martxan jartzeko Sasieta mankomunitateak, ARTELATZ enpresaren zerbitzuak kontratatu ditu. ARTELATZek, mota honetako lanetan eskarmentu handia du.

Aldi berean mankomunitateak, IIHII eta Ordiziako PATen laguntza du lan hau bideratu ahal izateko.

Kanpaina honen edukina, Hondakinen Bilketa Hautatua egin eta Berziklatzen oinarritzen da. Ikasleek inguruneari zor dioten errespetuz arduratzea du helburutzat.

Talde honen egitekoa, bi ataletan sailkatzen da:

- Lehenengo atalean «*unitate didaktiko*» batzuk sortzen dira. Unitate didaktiko horiek, ikastetxeetako irakasleei zuzenduak daude. Irakasleek,

horien bidez, eskualdeko ingurugiroari buruzko informazioa azaldu ahal izango diete beren ikasleei.

- Bigarren atalean, *ARTELATZ*ek ikasleekin batera berziklaketa pausoz pauso nola egiten den ikusteko ekintza batzuk egingo ditu. Klase praktiko horien ondoren, bigarren atal honi, Zabortegi Kontrolatura egingo den bisitaldi batekin emango zaio bukaera. Ekintza hauekin, ikasleei berziklaketa zer den eta zer erabilpen duen, ahal den ongien adierazten saiatuko dira.

A. Herritarrei zuzenduriko informazio eta kontzientziazio-kanpaina

Kanpaina honen ardura mankomunitateko ingurugiro-teknikariek dute eta bi helburu izango ditu:

- Hiritar Hondakin Solidoen berziklapenaren arrazoiaz berri eman eta sentiberatasuna sortu.
- Hondakinak «ezertarako balio ez duten zabor gogaikarri eta arbuiagarritzat» dauzkaten guztien jarrera aldaketa bultzatu, probetxamendurako ahalmen handia duten errekurso-iturburutzat har ditzaten.

Portaera berriak, norberak bere gain hartzeak, herritarrentzat aldaketa handia suposatu dezakeela kontuan izanik, Sasieta mankomunitateak, eskualdeko herritar guztiei, Bilketa Hautatuarekin zerikusia duten iharduera guztien berri ematea nahitanahiezkoa dela deritzo.

Informazio eta kontzientziazio kanpainaren zutabe nagusienetako bat mezua garbi helarazteko *komunikaziobide eraginkorra* aurkitzea da. Transmittitutako mezuak hiru arlo nagusi hartu beharko ditu kontuan:

- Inguruneari zor zaion begirunea.
- Bilketa hautatuaren arrazoiak.
- Bilketa nola egin.

Ingurugiroarekin erlazionaturiko mezuak emango dira, lehengaien eta energi iturburuen aurrezkiaren garrantzia azpimarratuko da, zaborrek inguruneari egin diezaioketen kalteaz ere hitzegingo da, eta zaborrei behar bezala aurre ez egiteak sor ditzakeen galera sozial eta ekonomiko ere ohartarazi egingo da.

Mezuaren bidez, azalpen zehatzak emango dira: zaborra nola hautatu eta aurkeztu, zorroak eta edukinontziak nola erabili, bilketako egutegia eta ordutegia azaldu.

Informazio eta kontzientziazio programaren bidez mankomunitateak, azken batean, hau lortu nahi du:

- Herritarrek, etxetako hondakinen hautaketa, eguneroko bizimoduko ekintza arruntzat hartzea.
- Uler ditzatela hondakinak tratatzeko aukeratu den sistema zehatz honen arrazoiak.
- Gure eskualdeko ingurunea babesteko lagungarri gerta daitezkeen ekintza horietan parte hartzeko ematen zaion aukeraz jabeaztea.

Kanpaina hau, Sasieta mankomunitatea osatzen duten 22 udalerrietan egingo da eta ia 68.000 lagunengan eragin zuzena izango du. Kanpainaren zuzeneko kudeaketa eta edukinaren koordinazioa, Sasieta mankomunitateak hartuko du bere gain. Aldizka, kanpainaren emaitzak ere aztertuko dira, ahalik eta emaitza hoberenak lortzearren.

III. Bilketa hautatuaren bideragarritasuna

Aurreko ataletan behin eta berriz aipatu bezala, etorkizunik handieneko Bilketa Hautatu sistema, etxebizitzetan material berreskuragarri edo «garbiak» jatorrian bertan bereizten dituen sistema da.

Bilketa mota honen bideragarritasuna aztertu asmoz, jarraian ematen dira Bartzelonako hirian, enpresa espezializatu batek hiritarrek jatorrizko Bilketa Hautatu eta Berziklaketari buruz duten ezagupena eta jarrera ezagutzeko, egin berri duen azterketa interesgarri baten ondorio nagusiak. Ondorio hauek, orokorki, gure eskualderako ere baliagarritzat har daitezke.

Azterlanaren datu aipagarrienak hauek dira:

A. Berziklapenaren ezagupena eta beroni buruzko balorazio orokorra

Bi biztanletatik batek zaborren berziklapenari buruz «noizbait zerbait entzun du». Inkestak ezer aipatzen ez badu ere, suposa daiteke prozesu honen ezaugarriak eta eraginak gutxiengo batek besterik ez dituela ezagutzen.

Zaborren berziklapenaren bidez lortutako dirua *Udalerrien hobekuntza-lanetan* erabiltzeari buruz herritarrei beren iritzia eskatu zaienean, iritzien balantzea, nola ez, erabat aldekoa izan da:

— Oso ontzat jotzen dutenak	%95,8
— Txartzat jotzen dutenak	% 1,2
— Iritzia eman nahi izan ez dutenak edota bost axola zaienak	% 3,0

B. Berziklapena aurrera eramateko zailtasunak eta hirritarrek eman dezaketen laguntzaren somaketa

Berziklaketa martxan jartzeko borondateari buruz eta herritarrek eskain dezaketen laguntza posiblea neurtzeko inkestan erabili diren adierazleei emandako erantzunak, ezin hobekak dira:

— *Berziklaketa gauzatzeko dauden aukerak:*

- Gauzatzeko modukoa da
- Ilun samar ikusten du

Ilun ikusten dutenen ustetan, arrazoi nagusiak ondorengo hauek dira:

- Herritarren kolaboraziorik eza, jendeari dena bost axola baitzaio.
- Zaborrak hautatu eta bereizteak duen zailtasuna.
- Berziklapenak nonbait herritarrentzat kostu handia suposatuko lukeenaren ideia.

— *Laguntzeko jarrera:*

- Laguntzeko prest legoke, bereskuragarriak diren materialak gainontzekoetatik bereiziz %66,0
- Ez dago horretarako prest %21,9

Herritarren laguntza edo parte hartzea zalantzan jartzen dutenen artean:

- Laguntza hori batez ere kultur mailaren edota norberaren kontzientziazio neurriaren arabera dagoela dio %44,0
- Etxean egin beharreko lanaren erreztasunaren arabera %15,0
- Aldez aurretik sentiberatasun-kanpainaren bat egitearen baitan..... %14,0

Galdetutako herritarrik gehienek ustetan (%72), Udala da proiektua bere gain hartu beharko lukeen erakundea.

— *Berziklaketari esker lortutako etekinak nori zuzendu:*

- Onurazko ekintzetara %51
- Herria hobetzeko inbertsioetara %43
- Zergak gutxiagotzeko %07

C. *Egungo portaerak eta proiektuari laguntza emateko dauden igurikapen pertsonalak*

Etxebizitzetan normalki zaborretatik bakar batzuk baino besterik ez dira bereizten. Material hauek ondorengoak dira:

- Egunkariak eta aldizkariak %69
- Beira %67
- Erropa, oihalkiak %77
- Kartoia %22

Berziklagarriak diren gainontzeko materialak (plastikoa eta latak...), ez dira ia bereizi ere egiten.

Galdetutako 10 herritarretatik 8, hala eskatuz gero, inkestan aipatutako material desberdinak hautatu eta bereizteko prest dago. Bereizketa egiteko garaian erreparo gehien sortzen dituzten materialak, batez ere latak eta plastikoak dira eta maila apalagoan kartoia. Jarrera positiboena aldiz egunkari, aldizkari, beira eta erropekin ematen da.

Azkenik, berziklapenarekin erlazionatutako aipamen garrantzitsu bat egin beharra dago: Austrian egin berri diren zenbait frogetan (ez da ahaztu behar Bilketa Hautatuen arloan estaturik aurreratuenetarikoa dela Austria) frogatu ahal izan denez, herritarrei ezin omen zaie hiruzpalau zabor mota baino gehiago bereizteko eskatu. Muga hau noski, oso kontuan hartu beharrekoa da.

IV. Beira-bilketa hautatua

Beirazko ontziak berreskuratzeko bi bide nagusi daude:

- Ontzia garbitu eta berriro betetzeko fabrikatzaileek berek egindako ontzien *itzulketa*.

- Hautsita edota oso osorik dauden ontziak txiki txiki egin eta garbitu ondoren, *urtu eta ontzi berriak fabrikatu*.

Beiraren berreskurapenaren alde diharduten garrantzi handieneko bi sektoreak honako hauek dira:

- *ANFEVI* (Beirazko Ontzi-fabrikatzaileen Estatuko elkarteak): kaleetan jarritako edukinontzien bidez bildutako *beira-hondakina* Laudioko *VIDRALA S.A.*ren berreskurapen instalazioetara eramaten da.
- Botila-errekuperatzaileak: itzulketarako ontzien berreskuratze sareetatik aparte garbitzeko botilak biltzen dituzte.

Beira, kontsumitzaileek ondo ezagutzen eta baloratzen duten materiala izanik, bilketa hautatuaren bidez erraz berreskura daitekeen materiala da. Halere, bide batetik edo bestetik beiraren berreskurapena aurrera daramaten sektoreen arteko koordinaziorik eza bistakoa da. Ezinbestekoa da inplikaturako sektore guztiek orain arte burutu dituzten lanak eta estrategiak bateratzea. Guztien lan-kidetza eta koordinazioarekin, beiraren bilketa eta berziklapena nabarmenki sendo daiteke.

A. Txiki txiki egindako beiraren berreskuraketa

Beira da dudarik gabe, zaborren artean herritarrek modurik errazenean identifikatu dezaketen osagaia. Mankomunitateko Udal desberdinak, ANFEVIK (Beirazko ontzi fabrikatzaileen Estatuko elkarteak) beira berziklatzeko diseinatuta daukan egitasmoari jarraituz, azken urte hauetan, apurka, beira-bilketa hautatua ezartzen joan dira eta horretarako *VIDRALA S.A.*ren jabetzako 2,5 m³ko edukinontziak jarri dituzte, baina zenbait kasutan handiagoak ere hasi dira jartzen.



Beiraren berreskurapena.

Egun, Goierriko udalerrietan jarrita dauden edukinontzi gehienak, 2,5 m³ko ahalmena dute eta kolore guztietako beira jasotzen dute. Bilketa hautatua egiteko sistema hau bere hedadura nahiz burutzeko eragatik eredutzat har daiteke.

1993an guztira 693 tona beira berreskuratu ziren. Gipuzkoan, Goierri da beira berreskurapenaren arloan lehenengo ageri den eskualdea. Pertsonako, urtean batezbeste 10,2 kg beira berreskuratu ziren. Hau da, iazko urtean zehar kontsumitutako beira osoaren %41 berreskuratu zen.

Berreskuratutakoa asko izan arren, ez dugu ahaztu behar batezbeste pertsonako urtean zehar 28 kg beira kontsumitzen direla. Beraz, gogo handia baldin badugu, badaukagu zer berreskuratua.

Ondoren, herriz herri zenbat kilo jaso ziren ikusiko dugu:

Altzagan	17.334 Kg.
Araman	2.535 Kg.
Ataunen	13.556 Kg.
Beasainen	94.502 Kg.
Ezkio-Itsason	1.848 Kg.
Gabirian	6.807 Kg.
Gaintzan	2.241 Kg.
Idiazabalen	28.945 Kg.
Itsasondon	8.827 Kg.
Lazkaon	50.749 Kg.
Legazpin	119.005 Kg.
Legorretan	13.952 Kg.
Mutiloan	14.872 Kg.
Olaberrian	6.175 Kg.
Ordizian	71.877 Kg.
Ormaiztegin	15.543 Kg.
Seguran	8.102 Kg.
Urretxun	79.534 Kg.
Zaldibian	13.952 Kg.
Zegaman	14.898 Kg.
Zerainen	5.783 Kg.
Zumarragan	101.986 Kg.

Beirarena, eredutzat hartzeko moduko bilketa hautatuaren sistema izan arren ere, urte askotan indarrean egon ondoren, sistema honi ere zenbait *akats txiki* nabari zaizkio, baina guztiak ere konponbide erraza duten akatsak, adibidez:

— Zenbait kasutan edukinontziak jarrita dauden *bilketa puntuen kopurua urriegia* gertatzen da eta honen ondorioz, herritarrek edukinontzietara iristeko bide luzea egin behar izaten dute.

Adibidez, ataudarrek askotan planteatzen duten arazoa da hau. Denok dakigu Ataugo biztanleen kopurua eta herriaren luzera ez direla batere proportzionalak baina horrek ez du justifikatzen jende kopuru nahiko garrantzitsu samarrak bizi diren gunek, batere edukinontzirik gabe ego-
tea.

— Edukinontzien *banaketa* ez da beti egokia, edukinontzien ezarketa eta husketa bere gain hartzen duen enpresaren errentagarritasun ekonomi-koaren baitan baitago gehienbat. Banaketa, herritaren beharren menpe



2 m²-ko beira edukinontzia.

ez baizik eta berreskuratzaileak lor dezakeen errentagarritasunaren menpe dagoela esan daiteke.

Horrela, edaritegiak, jatetxeak eta hirigintzako pilaketa haundiek, atentzio berezia jasotzen duten bitartean, biztanle dentsitate txikiagoko beste gune batzuek arreta kaxkarragoa jasotzen dute. Eremu horietan, edukinontzien eta herritarren arteko hurbiltasuna galdu egiten da.

- Edukinontzien *kokapena* kasu askotan, bilketako kamioiek kargatzeko duten erraztasunaren baitan egoten da, produkziogunea hurbil dagoen ala ez kontuan hartu gabe.
- *Herritarrek eta zenbait establezimenduk* (edaritegi eta jatetxeek bereziki), oraindik ere *beira zaborrontzira* botatzen jarraitzen dute. Horrelako ekin-tzek agerian uzten dute oraindik ere kontzientziazio haundiagoaren eta beirabilketako sarearen diseinu egokiaren beharra dagoela.

B. Itzultzeko ontzien berreskurapena

Orain arte bilketa hautatuaren sistemari buruz zenbait azalpen eman ditut, baina ez dugu ahaztu behar berreskurapenerako ezagutzen dugun bigarren ahalbidea. Garbiketa eta itzultzeko ontzien berreskurapena da hau. Sistema hau, produzitzaileen (batez ere edaritegi eta jatetxeen) eta berreskuratzaileen artean aurrez adostutako bilketen bidez egin ohi da, horretarako kaxak edo baldeak erabiliz. Horrela berreskuratutako ontziak (ardo, sagardo, muztio botilak etab.), behin sailkatu eta ondoren, garbiketa edota ontzibilketa-zentruetan saltzen dira.

Goierriko berreskuratzaileak nagusia *Gabiriako «BIZITZA OPAROA» Onura Elkarte* da. Elkarte honek batezbeste urteko 90 tona beira jasotzen ditu.

«Produzitzailearengandik zuzenean» egindako bilketak dituen abantailarik haundienak, *ontzia bereizita erretiratzea* (zaborrekin nahastu gabe), eta *produzitzaileari gainerako hondakinen kanporaketa erraztea* dira.

Ontzi gehien sortzen dituzten establezimenduek (edaritegi, pub, jatetxe, eta antzekoek), establezimendu ondoan edota inguruan beira biltzeko edukinontzirik eduki ezean, ez dute beira bereizketarik egiten eta gainontzeko zaborrekin batera botatzen dituzte. Horregatik, itzultzeko ontzien berreskurapenaren ardura dutenek kalitatezko bilketa zerbitzua egiten dutenean, beira berreskurapenari bultzada handia ematen diote.

Nolanahi ere, ontzi guztiek itzultzeko balio ez dutenez, establezimendu horietatik hurbil itzultzeko gai ez diren ontziak biltzeko beira-edukinontziak jartzea ezinbestekoa gertatzen da, beira zaborrekin batera jaurti ez dezaten.

Sistema honen arazorik larriena egungo botila barietate ikaragarria da. Berreskuratzailearen batek produzitzaileari bere establezimendutik botilak biltzeko nahia adierazten dionean, honek normala den bezala botila guztiak jasotzeko eskatuko dio eta ez botila-garbitzaileek erosi ohi dituzten motetakoak bakarrik (bordelesa, sagardoarenak...).

Berreskuragarriak diren botilen sailkapena egiterakoan, akatsak dituzten botilak ere alde batera uzten dira. Beraz, berreskuratzeko balio ez duten botilez osatutako hondarra sortzen da eta hondar hori, azken finean, txiki txiki egin behar izaten da.

Horrenbestez, *VIDRALA S.A. eta bertako berreskuratzaileen arteko koordinazioa* nahitanahiezkoa da, txiki txiki egindako beira guzti hori ontzi berriak egiteko VIDRALA S.A.k jaso beharko bailuke.

VIDRALA S.A. enpresari ahal den beira kopuru altuenak biltzea komeni zaionez, normalean beira-ekoizpengune haundien ondoan daude kokatuak edukinontziok. Ez dugu ahaztu behar, edukinontzi hauen propietatea enpresarena dela eta beraien esku dago non eta zenbat jarri behar dituzten erabakitzea. Hala eta guztiz ere, Sasietako arduradunek edukinontzi berri hauek gehienbat herri-gunetan ezartzeko aholkua luzatu diete VIDRALAkoiei.



4 m²-ko beira edukinontzia.

Beiraren berreskurapenari dagokionez, mankomunitatearen iharduketa-egitasmoa, oraindaino egiten den bilketari nolabaiteko hobekuntza batzuk egitea da. Horretarako 1993ean 18 beira edukinontzi gehiago jarri dira eskualdeko udalerrietan, hauetatik 7 Beasainen eta batzuk zaharrak baino haundiagoak dira. Aurtengo urte-amaierarako 20 gehiago jartzeko asmoa dago.

Bestalde, ohizko beira-bilketaren osagarri gisa, beira asko sortzen duten establezimientuetatik hurbil dauden *edukinontziek duten betetzeko zuloa, ohizkoa baino haundiagoa* izan dadila da Mankomunitatetaren nahia. Modu horretara, ontziak banan banan bota ordeztuz, modu erosogoa bete ahal izateko. Horretarako establezimendu horietako jabeek, zulo horren estalkia nahi dutenean ireki eta ixteko giltza bat emango zaie.

Hala behar izanez gero, zenbait kasutan ohizkoak baino edukinontzi haundiagoak jarriko dira, 4 m³ko edukinontziak esate baterako.

V. Paper-bilketa hautatua

Gizarte aurreratu honetan paper-kontsumoa kultur eta ongizate-mailaren adierazgarri bihurtu dela esan daiteke. Papera egunero topatzen ez duenik gutxi egongo da.

Paperak eta kartoiak, Hiritar Hondakin Solidoen zati geroz eta haundiagoa osatzen dute. Estatu Batuetan %40, Europako Ekonomi Elkartean %30 eta Euskal Autonomi Elkartean %15-20 suposatzen dute. Zifra hauek Barne Ekoizpen Gordinaren arabera etengabe goraka egiten ari dira.

Adibide gisa esan, Bartzelonan (beste zenbait hiri handitan bezala), azken 5 urte hauetan, Hiritar Hondakin Solidoak pisuari dagokionean %35 gehitu direla (%68 bolumenen igoera) nahiz eta biztanlegoa bere hartan mantendu den.

Goierrin ere, 1991n Zabortegian bildutako datuak 1992koekin konparatuz gero, *urteko %5,6ko gehikuntza* somatzen da, hau da eguneko 3,5 tona zabor gehiago.

Datu hauen arabera, urtero, Sasieta mankomunitateko biztanle bakoitzak 40 eta 54 Kg arteko paper kopurua bota ohi du zaborrontzira. Halere, *paper guzti honen %62a bakarrik berreskura daiteke*, gainontzekoa, higie eta sanitate arloko erabilerarako den papera, plastifikatutako papera etab. baita.

Arazo hori, neurri batean behintzat konpontzeko, irtenbiderik egokiena *PAPER BILKETA HAUTATUA ETA BERZIKLAPENA* egitea da, izan ere «hondakin» edo «zabortzat» hartzen dugun material hau benetako balioa duen «lehengai» probetxagarria baita.

Etxetako zaborrek barnebiltzen dituzten hondakin probetxagarrien artean, papera da pisu eta bolumen handiena duena inongo dudarik gabe. Beraz, paperberziklapena *premiarik haundieneko helburua* dugu, izan ere, bilketa hautatuko teknikei esker, Hiritar Hondakin Solidoen zati handi bat erretira baitaiteke.

Bilketa Hautatuaren bidez jasotako papera, *paper «berziklatua»* egiteko erabiltzen da. Bere fabrikazio prozesuan *egurrik ez erabiltzeaz gain, energia eta ur gutxiago* kontsumitzen dira.

Paperari bigarren erabilpen bat eman nahi baldin bazaio, ezinbestekoa da gainontzeko hondakinetik bereiztea. Horrela jokatuz bere metaketa galerazten da eta lehengai bezala probetxa daiteke. Horixe da hain zuzen ere BILKETA HAUTATUA.

Kontsumitzen den paperaren *Probetxamendu-ahalbideak* zenbatekoak izan daitezkeen zehazterik ez dago. Estimazio guztiak subjektiboak behar dute izan eta gutxienez ondoren aipatzen diren aldaketen menpe egongo dira:

- Biztanlegoaren dentsitatea.
- Biztanlego mota (hiritarra edota nekazaria).
- Errenta-maila.
- Paper-kontsumoa (pertsone bakoitzeko).

Beraz, paper erabiliaren probetxamendu posibilitateari buruzko edozein aipamen kontu handiz hartu beharko da.

Paper erabilia berreskuratzeak eta berziklatzeak dakartzan *onura* aipagarriena honako hauek dira:

- Paperari erabilgarritasuna ematen dio, *lehengai moduan probetxatzeko* aukera ematen duelako.
- Aldi berean, *energia aurreratu eta baliabide naturalen kontsumoa txikiagotzen da*.
- *Bildu eta suntsitu beharreko zabor-kopurua txikiagotzen du* eta horren ondorioz zaborrek eragindako zenbait eragozpen gutxitzen dira. Adibidez, Zabortegi-kontrolatuaren lur eremuaren jaurtiketaganera hondakin kopuru txikiagoak eramaten baditugu, bere bizi iraupena luzatuko dugu.

A. Europako eta Estatu Batuetako Bilketa Hautatu eta Berziklapen esperientziak

Estatu desberdinetan bultzatzen ari diren ekimenak, Estatu bakoitzaren arazo eta ezaugarrien arabera egokitutakoak dira. Guztien helburua berriz, birbalora daitezkeen gaiak, beira eta papera bereziki, zaborretatik ahalik eta gehien bereiztea da.

Ondoren, estatu adierazgarrienen paperaren berreskurapenean inguruan gauzatzen ari diren zenbait ekimen aipatzen dira:

- Estatu Batuak: 1990ean Ingurugiroa Babesteko Agentziak eta Bushen Administrazioak, 1992. urtean suntsitu beharreko hondakin-kopurua %25ean gutxitzea erabaki zuen. Helburu hau dela eta, etxetako hondakinen artean berreskuragarriak diren materialen *Jatorrizko bereizketa eta banakako bilketa* bultzatu dute. Ekimen hau paperarekin eginga izan da batipat, izan ere zaborren %40 suposatzen baitu paperak EEBBetan. Papera berziklatu ondoren bere erabilpena sustatzeko kontsumoa gehitu duten hainbat lege berri indarrean sartu dira, esate baterako:
 - 18 Estatuetak legeriak, prentsa paperean berreskuratutako paper-portzio handi bat sartzea behartzen du.
 - Estatu federalen paper-erosketetan, berziklatutako paperak lehentasuna du.
 - Papera berziklatzeak dakartzan onurak ezagutarazteko herritarrei zuzendutako sentiberatze-kanpainak.

— Frantzia: Frantzian, hondakinen berreskurapen eta suntsiketarako Agentzi Nazionala, Bilketa Hautatua han-hemenka ezartzeko ikerketak eginez eta gomendioak eta laguntza eskainiz lan izugarria egiten ari da.

Egun, Frantzian, jatorrian egindako bilketa hautatuaren ezarketa bultzatzen ari dira, berreskuratutako paperaren berziklapena eta erabilera gehitu asmoz.

Bilketa zenbait kasutan «atez ate» egiten da eta beste batzutan berriz, *2 m³ko edukinontzien bidez*. Diseinu aldetik, bi bilketa-mota hauek antzekoak dira:

- Udalek Paper-bilketa Hautatuaren kostua beren gain hartzen dute, baina hori bai, kostu honek ezin ditzake inolaz ere hondakinen ohizko bilketa kostuak gainditu.
- Bildutako papera berreskuratze-biltegian entregatzen da eta bertan fabrika erabili ahal izateko prestatzen da.
- Berreskuratutako paperak fabrika duen balioa, prestaketa kostua kendu ondoren, Udalaren aurrezki gisa gelditzen da.

— Holanda: Holandako paperaren berreskurapen tasa, %44,3, Europako altuenetarikoa da. Herritarrek, txukuntasun handiz jatorrizko paper bereizketa egiten dute, ondoren «atez-ate» nahiz «edukinontzi kolektiboen» bidez bildu ahal izateko.

«Atez-ateko» bilketa egiten duten berreskuratzaileen sare zabala dago, gehienak gizarteko onura izaera dutenak. Berreskuratzaile profesionalek, osagarri gisa, «papera bakarrik» jasotzeko diren edukinontzi kolektibo ugari jarri dituzte toki zehatzetan.

«Atez-ateko» bilketa sistemaren eraginkortasuna eta jarraipena ziurtatzeko, «*sari edo prima ekologiko*» bat ezarri da. Sari hau, egia esan, *berreskuratzaileek bildutako paperaren salmentarekin lortutako prezioaren osagarria* litzateke, iharduera honek merezi duen ordaina ziurtatu eta paper bilketa maila ezin hobean mantentzeko hain zuzen ere. Sistema hau, batez ere merkatuko prezioak behar adinakoak ez diren uneetan aurre egiteko asmatua da eta horixe da hain zuzen ere egungo egoera. Hilabetero, berreskuratzaileek berreskuratze biltegieta eman zaizkien erosketa albaranak aurkeztu ondoren, Udalak ordainduriko prima ekologiko hori kobratuko dute.

Saria, Udalean erregistratuta dauden paper berreskuratzaileek bakarrik jasotzen dute. Udalean bereskuratzaile moduan erregistratu ahal izateko, Udalarekin, bilketa-eremu, egutegi, ordutegi eta ibilgailuen ezaugarrien inguruan aurrez ezarritako zenbait baldintza betetzen dituztenaren konpromezua sinatu beharko dute.

— Alemania: Alemania, Holandarekin batera, hondakinen kudeaketan sentiberatasunik handienetarikoa duen Estatu da.

Alemanian Herri Elkarteek Bilketa Hautatua egiteko era aukeratzeko eskumen osoa dute. Hiru sistema-mota ditugu Alemanian:

- *Edukiontzi mistoa*: Alemanian hasiera batean sistema hau gauzatu zen. Sistema honen arabera herritarrek zaborrak botatzeko bi edukiontzi dituzte.

Edukinontzietako bat materia organikoa jaso eta Zabortegei Kontrolatuan jaurtitzeko da.

Berreskuratzeko gai diren materialak (papera, beira, plastikoa, ehunak, etab.) beste edukinontzian botatzen dira, ondoren sailkapen zentruetara bidali, osagai bakoitza behar bezala prestatu eta gero fabrika kontsumitzaileei saltzen zaizkie.

Sistema honek, hasiera batean arrakasta handia izan bazuen ere, ez du aurrera egin, izan ere papera gainontzeko zaborren ikutuaren eraginez ezertarako balio ez duela gelditzen baita.

- *Material-mota bakarrentzako edukinontzia*: zaborretan hartzen duten proportzioa eta tratamendu ezaugarriak aztertzen badira, berziklatzeko gaitasuna duten ia material bakarrak PAPERERA eta BEIRA direla kontutuan hartuz, bilketa hiru edukinontzien bidez egiten da: papera, beira eta gainontzekoak.
- «Atez-ateko» *bilketa*: sistema honetan, herritarrek, egun jakinetan, papera gainontzeko zaborretatik bereizi eta beren etxeko ate ondoan uzten dute.

«Edukinontzi mistoa» erabiltzen den tokietan, pixkanaka, beren ordean, «material-mota bakarrentzako edukinontzia» edota «atez ateko bilketa» sartzen ari da, lehengo sistemen aldean honako abantailak dituztelako batipat:

- Hondakinak tratatzeko instalazio beharrik ez dute.
- Kontsumitu aurreko prestaketa merkeagoa da (materialak bereiztuta iristen baitira).
- Lortutako produktuak kalitate handiagoa dute, ez baitira beste inongo materialen eraginpean egon.

B. Europako Ekonomi Elkartearen hondakinekiko estrategia

Europako Ekonomi Elkartearak sarritan azaldu ditu hon-dakinen tratamenduaren inguruan dituen kezak. Ondorengo Direktibak adibide bat besterik ez dira:

- 1975eko *Uztailaren 15eko 442 zk.dun Xedapeneko 3.artikuluak* zera dio: «EEEa osatzen duten estatuek, hondakinen prebentzioa, berziklapena eta hauetatik lehengaiak edota energia ateratzeko eraldaketa nahiz hondakinen berrerabilpena lortzeko edozein metodoren ezarketa sustatzeko, neurri egokiak hartuko dituzte».
- 1981eko *Abenduaren 3an EEEko Kontseiluak argitaratutako 81/972 Gomendioak*: «Paperak, hondakin solido hiritarren osagai bezala, hartzen duten izugarritzko bolumena, paper hori errekuperatu eta paper fabrikazioan lehengai bezala erabiltzeko dauden baliabide teknikoak, papera fabrikatzeko EEEen dagoen lehengaien defizita, paper erabilpenak dakarren energi eta ur aurrezte eta airearen kutsadura gutxitzea kontuan izanik, EEEko kontseiluak errekuperatutako papera berrerabiltzeko gomendioa egiten du».
- 1989ko *Irailaren 13an, EEEko Batzordeak «Hondakinen Kudeaketarako Elkartearen estrategia»* argitaratu zuen, bertan ondorengo oinarritzko printzipioak ezarriz eta lehentasun hauek emanez:

- Hondakinak, kopuruari eta kaltegarritasunari dagokionean ekidin eta gutxitu.
- Ingurugiroari egindako eraso gutxitu ahal izateko, hondakinak berriro ere probetxatu.
- Probetxatu ez daitezkeen materialen amaierako suntsiketa optimizatu.

C. Paper-berziklaketa egungo egoera Goierrin

Sasieta mankomunitateko lurralde-eremuan aurki daitekeen errekupeazio-egitura nahiko *eskasa* da. Gainera, bilketa-kostuak altuak dira, aldiz, paper salmentatik lortutako diru sarrerak gutxitzen doaz, beraz paperaren bilketarako sistema egun Goierrin egoera tamalgarri samarrean dagoela esan daiteke.

Garbi dago biltegietara zuzenean eramaten diren paperek dutela baliorik handiena. Gainontzeko paperak, hau da, balio, dentsitate eta preziorik baxuena dutenak, maila apaleko berreskuratzaileen esku gelditzen dira eta hauen irabaziak ia gehienetan, egiten duten lana konpentsatzeko ere ez dira iristen.

Zabor kopuruaren gutxitze lanetan sektore honek duen garrantzia dela eta, Sasieta mankomunitateak iharduera hau hiritar hondakinen bilketa eta tratamendu estrategian barneratzea ezinbestekoa dela kontsideratu du. Horrela, iharduera honen nolabaiteko jarraipena, indarra eta duintasuna ziurtatu nahi da.

Bestalde ez dugu ahaztu behar, paperaren bilketa hautatua egiten baldin badugu, fabrikatzerakoan naturari baliabide gutxiago kendu ahal izango dizkio-gula, energia asko aurreztu eta ur gutxiago kontsumituz.

Lehen garai batean etxeetan, denda txikietan, bulegoetan etab. sortzen zen paperari nolabaiteko etekin bat ateratzen zitzaion, nahiz sua egiteko probetxatuz edo enbalaia gisa erabiliz, salduz, etab. Baina azken urte hauetan, joera hau aldatuz joan da, eta egun papera ere zabor arrunt bailitzan jaurtitzen da. Beraz, paperen bilketa, geroz eta urriagoak diren herrietako berreskuratzaileen esku geratu da.

Maila txikiko paper bilketa eta salmentak gutxitzearen arrazoi nagusiak bi dira:

- Paperaren prezio baxua batetik.
- Familia gehienen ongizate mailaren gehikuntza, bestetik.

Azken urte hauetan, herrietan beti ezagutu izan ohi ditugun berreskuratzaileak pixkanaka desagertzen joan dira. Kasu gehienetan berreskuratzaileek fabrikatzaileei saldutako paperarekin lortutako irabaziekin paper berreskuratzailearen bilketa eta garraio kostuei ezin diotelako aurre egin.

Sasieta mankomunitatearen arloan diharduten paper-berreskuratzaile aipagarrienak ondorengo hauek dira:

1. Banakako berreskuratzaile txikiak:

- oso lan eremu txikia dute (gehienetan udalerrri bat besterik ez).
- gehienek azpiegiturarik ez dute, ez ibilgailurik ez biltegirik.
- etenik gabe edota aldizka lanegiten dute.
- eguneko 100-150 kg inguru biltzen dituzte.

- dendetako kartoiak biltzen dituzte gehienbat.
- zenbat diren zehazterik ez badago ere, zenbait udalerritan aurki daitezke, Beasain eta Zumarragan esate baterako.

Beren lana, aitortu eta arautu gabe dagoenez, aintzat hartzen ez den lan marginalizat jotzen da.

2. Kultur elkarteak, ikasle taldeak eta antzekoak

Aldizka lan egiten dute, beraien helburua zenbait ekintzetarako diru apur bat lortzea da.

Ataungo «Joxe Miel Barandiaran» eskolako ikasleek, esate baterako, ikasurte amaierako bidaia egiteko dirua lortu asmoz egiten zuten bilketa. Lan hau herritarrek asko estimatzen zuten eta erantzun nahiko zabala izaten zuen. Halere, Ordiziako REMAR onura elkarteak hasi zenean Ataunen bilketa egiten, ikasleek Remarrekoen arduraren uztea erabaki zuten zerbitzu hau. Alde batetik beraiek baino egokiago egingo zutelako pentsatu zutelako eta bestetik, elkarte honek irabazitako diruarekin bete nahi dituen helburuak bidaia bat egitea baino garrantzitsuagoak kontsideratu zituztelako.

Berreskuratzaile talde hauek oso lan eremu txikia dute. Lan hau ezin da zerbitzu iraunkor eta eraginkortzat jo, beraz, aldizkako finantzaketa sistema bat bezala hartu behar da.

3. Onura-elkarteak

- lan eremua handiagoa dute.
- azpiegitura bat badute.
- erregulartasunez lan egiten dute.
- bere kideen, bereziki drogamenpekotasuna duten edota marginatuta dauden, bergizarteratzea lortu nahi duten irabazi asmorik gabeko elkarteak dira.
- Goierriin xede honetako elkarte bakarra dago momentu honetan: *Ordiziako REMAR*.

4. Berreskuratzaile profesionalak

- azpiegitura ona dute.
- erregulartasunez lan egiten dute.
- beren lana produzitzaile handiei (enpresei, supermerkatu handiei...) zuzendua dago batik bat.
- bildutako papera eta kartoiak bildu eta sailkatzen duten biltegiak berreskuratzaileak dira.
- aipatzekoak dira beste Ikaztegietako DESPASA eta Legorretako PAZASA.

D. Sasieta mankomunitateen paper-bilketarako sistema

1991ko urte amaieran, Sasieta mankomunitateak, lehenago aipatutako bi onura elkarten laguntzaz, Ordiziako REMAR eta Gabiriako BIZITZA OPAROA, Goierriko zenbait udalerritan Paper Bilketa Hautatuko ekintza pilotu bat jarri zuen

martxan. Egun, Ordiziako REMAR elkarteak bakarrik du lan horren ardura, Gabiriako BIZITZA OPAROA taldeak bertan behera utzi zuelako.

Ekintza honek oso harrera ona izan zuen eta hiru helbururekin sortu zen:

- Lehena, mankomunitateak Hiritar Hondakin Solidoen eta Berziklaketa lanen ardura bere gain hartu bitartean, paperari irtenbideren bat ematea, behin behinekoa besterik ez bada ere.
- Ekintza hauen aurrean herritarren kontzientziazio maila eta emandako erantzuna aztertzea, aurrera begira ikuspegi zabal eta antolatuago batetik ekintza berriak planifikatu ahal izateko.
- REMAR eta BIZITZA OPAROA elkarteekin elkarlanean aritzea.

Sasieta mankomunitateak hartutako konpromezu bakarra, Udalen, herrietako kronikarien eta gisakoen laguntza lortu eta kanpaina aurrera eramateko beharrezkoa zen publizitate materiala jartzea izan da.

Goierrin dagoeneko ezaguna egin da papera biltzeko «atez-ateko» sistema. Sistema horrek ez du zailtasunik eta herritarrentzat, oso eroso gertatzen da. Bilketak normalean astean behineko maiztasuna izaten du eta etxeko ate ondoan paperak uztea nahikoa da.

Bilketa eguna jaieguna baldin bada, bilketa, egun bat aurreratu edota atzeratzen da. Horrelakoetan behar bezala iragartzen da. Bilketa lana errazteko, komenigarria da fardel moduan edo ohizko plastiko-poltsetan sartuta ateratzea.

Ondorengo datuetan ikusi ahal izango dugunez herritarren erantzuna ona izan da eta etenik gabe goraka doa, hala ere oraindik emaitzak asko hobetu daitezke.

Datu hauek azaletik begiratzearekin garbi ikusten da 1993. urteko ekitaldian bildu den paper kopurua 1992. urtekoa baino dexentez handiagoa dela.

Zehatzagoak izateko, 92/93 ekitaldiko Urtarriletik Irailera bitarteko datuen konparaketa egingo dugu, oraingoz 1993ko azken hiru hilabeteetako daturik ez dagoelako.

1992. urteko ekitaldian, Urtarrila/Iraila bitartean, guztira 116.860 kg paper metatu zen. Hurrengo urtean, denbora berdinean, 466.070 kg paper bildu zen. Beraz, aurreko urtean baino 349.210 kg gehiago. Baina ez dugu ahaztu behar, datu hori erabat okerra ez den arren, ez dela erabat zuzena ere. Horren arrazoia zera da, 1992. urteko ekitaldian, artean sistema hau zenbait udalerritan urte hasieratik martxan jarri gabe zegoela eta urtean zehar joan zirela poliki poliki sistema hori ezartzen.

Hori dela eta, 1992tik 1993 zenbaterainoko diferentzia somatzen den zehatz-mehatz ikusteko, 1992ko ekitaldian kanpaina bere osotasunean martxan zegoen herri bateko datuak hartuko ditugu. Adibidez, Zumarragoak.

— 1992ko Urtarriletik Irailera, 23.470 kg paper bildu zen.

— Eta 1993ko Urtarriletik Irailera, 82.190 kg.

Urte batetik bestera, 58.720 kgtako diferentzia dago. Kopuru garrantzitsua da, baldin eta kilo bat paper metatzeko, paper kopuru haundiak behar direla kontuan hartzen badugu.

Orain arte ikusten ari garen datuak ohizko paper bilketari dagozkienak dira, hau da, etxebizitzetan sortzen den paperaren bilketari dagozkionak. Baina ekitaldi batetik bestera garrantzia hartzen ari dena zera da, telefonoz deitu ondoren egiten

Sasieta mankomunitatea: paper-bilketa hautatua. «Atez-ateko» bilketa-sistema (Kg/hilabeteko). 1992. urteko ekitaldia

Udalerriak	Urriarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
Ordizia	820	1.800	2.180	3.700	4.100 5.080*	3.660	3.240 2.610*	4.620 360*	4.000	5.560 5.500*	4.950	6.860 11.110*
Beasain	1.440	1.460	1.620	1.940 3.400*	1.540	3.120	3.140 520*	3.000	3.000	3.800	5.450	5.150 2.030*
Lazkao	1.100	1.200	1.320	1.080	4.730	4.750
Ataun	1.180	400
Lazkao-Ataun	1.100	1.860	2.840 340*	1.000	1.500	3.500
Idiazabal-Olaberría	1.960	1.580	780	1.700	1.700	1.930	2.220
Legorreta-Itsasondo-Zaldibia	1.480	1.520	1.500	1.300	1.600	1.800	1.270	2.130
Gabiria	200	250	300	400	400	300	400	375
Ormaiztegi	360	680	540	260	280	1.880	1.300	1.380
Zumarraga	1.280	1.720	1.940	1.120 4.400*	2.830	4.360	4.280	1.680	4.260	6.550	7.830	8.600
Urretxu	600	1.160	1.260	450	920	1.700	1.910	720	1.700	2.020	3.460	3.160
Segura-Zerain-Mutiloa	280	460	620	720	720	480	1.440	780
Guztira	5.240	7.340	8.320	8.290 7.800*	12.810 5.080*	19.570	19.950 3.470*	13.180 360*	19.160	27.590 5.500*	33.940	35.805 13.140*

Datu iturria: Sasieta Mankomunitatea.

(*) Telefonoz deitu ondoren egindako ez-ohizko paper-bilketa: merkataritza, industri eta zerbitzu-alorrean.
Guztira 1992. urtean: 211.195 + 35.350 = 246.545 kg.

Sasieta mankomunitatea: paper-bilketa hautatua. «Atez-ateko» bilketa-sistema (Kg/hilabeteko). 1993. urteko ekitaldia

Udalerririk	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
Ordizia	5.070 950*	13.360 1.100*	10.870	9.040 1.820*	11.520	13.160	9.750	8.590	12.050 520*			
Beasain	3.860 1.150*	9.030 1.320*	9.050	11.570 460*	10.880	11.730	14.210	5.720	11.750			
Lazkao-Ataun	5.130	6.320	6.090	5.390	5.850	7.890	5.400	4.020	7.230			
Idiazabal-Olaberría	1.030	2.970	2.000	3.900	3.730	2.350	2.300	3.210	2.790			
Legorreta-Itasondo-Zaldibia	1.740	3.270	2.590	480*	910*	3.520	1.300*	1.060*	580*			
Gabiria	400	400	400	400			
Ormaiztegi	1.280	2.260	2.200	1.620			
Zumarraga	7.690	8.440	10.020	9.330	10.450	13.760	8.820	4.560	9.120 560*			
Urretxu	2.920	5.540	6.250	5.960	6.760	9.710	7.300	4.560	8.360			
Ségura-Zerain-Mutiloa	950	1.330	600	1.420			
Segura, Zerain, Mutiloa, Zegama, Gabiria eta Ormaiztegi	5.100	4.440	5.940	4.640	5.460			
Aurrekoen batura	30.070 2.100*	52.920 2.440*	50.070 480*	52.320 3.890*	57.290 3.230*	66.560 5.540*	57.590 1.300*	37.220 1.060*	62.130 1.660*			
Guztira	32.170	55.360	50.550	56.210	60.520	72.100	58.890	38.280	63.790			

Datu iturria: Sasieta Mankomunitatea.

(*) Telefonoz deitu ondoren, merkataritza, industri eta zerbitzu-alorrean egindako ez-ohizko paper-bilketa. 1993. urtean metatutakoa. Guztura: 487.870 kg.



Atez-ateko paper bilketa.

den ez ohizko bilketa. Bilketa hau, merkataritza, industria eta zerbitzu alorrean egiten da. Hilabetero jaso diren kilo kopuruak oso apalak izan arren, aipagarria da 1992ko ekitaldian zenbait hilabetetan ez zela mota horretako deirik jaso ere egin, aldiz, 1993koan, gutxixeago ala gehixeago, hilabetero jaso zen zerbitzu.

Telefonoz jasotako eskarien bidez, 1992ko *Urtariletik Irailera*, 16.710 kg jaso ziren guztira. Eta 1993ko epe berdinean, 21.700 kg. Ikusten denez, etxebizitzetan jasotzen dena baino askoz ere gutxiago biltzen da. Badirudi, Industri, merkataritza eta zerbitzu alorrean, beste bilketa mota bat egiteko ohitura dagoela.

Bestalde, eguneroko errealitateak erakutsi digu, peperak eta kartoiak, hartzen duten bolumenagatik, dendariak ez dituztela pilatzen eta ia egunero kalera ateratzen dituztela.

Hau konpontzeko, edukinontzien bidezko bilketa sistema ezartzen denean, merkatal establezimendu gehien dauden herriguneko eremuetan *edukinontzi gehiago* edota *ahalmen handiagoko edukinontziak* jarri beharko dira edota bi aukera hauen konbinaketa bat.

Aukeratutako sistema edozein izanik ere, dendarien lankidetzaz ezinbestekoa da, bildu beharreko kartoiak tolestatu edota txiki-txiki egin behar baitu.

Enpresa eta merkatalgune zabaletan sortutako kartoi bolumena handia denean, mota askotako produktuen enbalaiak gisa erabiltzen den kartoiari buruz ari gara hitzegiten. Material honek duen bolumena handia da eta pisua aldiz, txikia; beraz, material hau bildu eta garraiatu nahi baldin bada, ahalmen handiagoko baliabideak edota zenbait kasutan materialen aurreprestatketa egitea, trinkoketa batipat, ezinbestekoa da.

Badira eskualdean bere lana ongi egiten dakiten berreskuratzaile profesionalak. Berreskuratzaile horiek, produzitzaile handiek sortutako paper eta kartoi-bilketan lan bikaina egiten ari dira. Mankomunitateak iharduera honi gogotsu lagundu behar dio, material hauen kontrolak gabeko jaurtiketa eta erreketak eragozteko asmoarekin.

Gipuzkoako Foru Diputazioak, paper-produkzio handiko lekuetan (ikastetxetan, zentru ofizialetan etab.) *Paper-Bilketa* kanpaina bat jarri du martxan.

Kanpaina honek, martxan jarri den tokietan oso harrera ona izan du. Sasieta mankomunitatea, kanpainaren orduko arduradunekin jarri zen harremanetan, emaitza horien antzekoak Goierri lortzeko itxaropenarekin. Gauza da, kanpaina hau oraindik ere gure artera ez dela iritsi.

Gipuzkoako Foru Diputazioarekin izandako azken harremanen arabera, badirudi Diputazioak, Herri Erakundeen esku utzi nahi duela paper bilketa hautatuaren antolaketa eta gidaritza. Horretarako Diputazioa oraindik zehazteko dauden finantza laguntzak eskaintzeko prest legoke.

E. «Atez-ateko» bilketa-sistema eta Edukinontzien sistemaren arteko konparaketa

Azken urte hauetako esperientziak, «atez ateko» bilketa, oso sistema eraginkorra dela erakutsi du. Alde batetik, berziklagarria den materiala etxe ondoan uztea nahikoa delako eta bestetik, edukinontzien erosketa eta mantenimendu kostuak ekiditen direlako.

Hala ere, sistema honen desabantailak ugariak dira. Ez dugu ahaztu behar, «atez ateko» bilketa sistemaren helburua etxebizitzetan sortu ohi den papera

biltzea denez, garrantzi handiko beste zenbait produkzio gunetara iristea nahiko zaila gertatzen dela (Industri eta merkatal sektorera nahiz Irakaskuntza eta Administrazioa).

Gainera, herritarrak, aurrez ezarritako paper-bilketaren eguna eta ordua zaindu behar ditu nahitanahiez paperak ateratzerakoan. Egunen batean, bilketa ordutik kanpo baten batek papera ateratzen baldin badu, paper hori bi arriskurenpean gelditzen da:

- Alde batetik, *eguraldia*. Euria egiten baldin badu, zenbait tokitan paper hori busti egiten da eta ondorioz alferrik galtzen da.
- Bestetik, *umeak*. Dakigunez, umeek dena ikusi eta ukitu nahi izaten dute, beraz oso gertagarria denbora luzean ate ondoan paper pila bat ikusitakoan, zorro barnera begiratzeko harra sortzea eta ondoren bertan dena nahastuta uztea.

Beraz, batzutan eguraldia eta bestetan umeak direla bide, baina baita, herritarren erantzun maila handia denean ere, egunkari eta aldizkariz betetako etxetako ateez eskaintzen duten itxura, ez da oso ikusgarria izaten.

Mankomunitateko arduradunak beti saiatzen dira zerbitzuak hobetzen eta «atez ateko» bilketa sistema eta edukinontzien sistemaren arteko konparaketa egin ondoren, «*edukinontzien bidezko bilketa sistema*» hautatzea erabaki dute atez ateko bilketa sistemaren ordeaz.

Hau dela eta, 1993ko Azaroaren 8an, Mankomunitateak lehiaketa publiko bidez, paper bilketa hautaturako edukinontziak hornitzeko deialdia egin zuen. Mankomunitatearen aurrikuspenen arabera, 1994ko ekainerako, eskualde guztian egongo dira edukinontzi hauek.

Edukinontziz hornitzeko aurrikuspena, 3 m³-ko 150 edukin ontzitakoa da, 425 biztanleko edukinontzi 1, alegia. Herritarrentzat zerbitzuaren hurbiltasuna ziurtatzen saiatuko dira.

Edukinontziak kolore urdinekoak izango dira, poliester eta beira zuntzez fabrikatuak, suteen aurkako erretxinekin tratatuak eta «PAPERA BAKARRIK» idazkuna izango dute. Zabor bilketarako erabiltzen diren modukoak izango dira. Paperak eta kartoiak ondo tolestatuta sartzeko moduko zirrikitu bat edukiko dute. Beharbada erosoagoa izango litzateke edukinontzien estalkia erabat irekitzen dena izatea, baina beste toki batzuetako esperientziak erakutsi duenez, herritar batzuk inongo erreparorik gabe zabor zorroak bertan sartzen dituzte. Beraz, kartoiak batez ere ondo tolestatuta sartu beharko dugu, bestela edukinontzia bi gauzatxorekin erabat beteta geldituko baita.

Udal-antolakuntzaren barnean, herri erakunde gisa sailkatzen dira Mankomunitateak (oinarrizko legearen, 3.2,d, art.). Horrek zera esan nahi du, zerbitzu publiko baten kudeaketaren ardura izango duen hirugarren bat kontratatzerakoan, Udal antolakuntzarako legeak kontuan hartu beharra dago (batez ere, OL, TB, eta ROF) (*).

TB-ren 118. artikuluan, herri erakunde batek kontratu bat sinatzerakoan, hiru ihardunbideren artean aukera dezakeela azaltzen du:

(*) OL: Udal antolakuntzarako Oinarrizko Legea.

TB: Udal antolakuntzarako Testu Bateratua.

ROF: Udal antolakuntza eta Funtzionamenturako Erregelamendua.

- Enkantea.
- Lehiaketa publikoa.
- Zuzeneko kontratazioa.

Obretarako kontratu gehienak, enkante bidez esleitzen dira normalean. Zerbitzu publikoen kudeaketarakoak, lehiaketa publiko bidez.

Zuzeneko kontratazioa egin ahal izateko, legeak zehazturiko baldintza batzuk betetzea ezinbesteko araua da. TB-ren 120.1.3 artikuluan zehazten da kasu horietako bat: erakundearen aurrekontuaren %5eko muga gainditzen ez duen zerbitzuak kontratatzeko kasua alegia.

Edukinontzien bidezko paper bilketaren ardura hartuko duen hirugarren bat kontratatzerakoan, Sasieta mankomunitateari arazo bat sortu zaio. Bilketa martxan jarri aurretik, inork ez daki zenbaterainoko kostua ekarriko duen. Hori dela eta, enpresa batekin 2 hilabetetan bilketa egiteko akordiora iritsi da orain dela gutxi mankomunitatea. Enpresa horren lana oso gertutik jarraituko dute. Modu horretara, bilketak, zenbaterainoko kostua dakarren kalkulatu da.

Hala eta guztiz ere, nahiko argi dago, aurrekontuaren %5 gaindituko duela zerbitzu horren kontratazioak, beraz, seguru asko, lehiaketa publiko bidez esleitu da zerbitzu hau.

Mankomunitateak aukeratutako arduradunak, dagokion dirua kobratu ahal izateko, papera jaso ondoren paper berziklaketan lana egiten duten lantegi batera papera eraman duela azaltzen duen ziurtagiria erakutsi beharko du. Ondoren mankomunitateak ziurtagiri horren arabera ordainduko dio.

«Edukinontzien» bidezko bilketa sistema honen bidez, herritarrok inongo denbora mugarik gabe, paper eta kartoi berziklagarriak kalean jarritako edukinontzi kolektiboetan husteko aukera dugu. Gainera horrela ahaztu ahal izango dugu, zenbait garaitan aldizkariz eta egunkariz betetako etxetako ateez eskaintzen duten imajina ez oso itxuroso hori.

Garbi dagoena da, modu batera edo bestera herritarron laguntza ezinbestekoa dela. Eta gaurdainoko datuak txalogarriak izan arren, badirudi beste herrialde batzuetako kopuruetara iristeko oraindik ere asko ikasi beharrean gaudela.

VI. Etxetako hondakin arriskutsuen bilketa hautatua

Etxebizitzetan maiz erabili ohi ditugun produktu askok eta askok, inongo kontrolik gabe botatzen badira ingurugiroa kutsa dezakete. Hondakin hauekin zer egin behar den eztabaida handiak sortzen dituen gaia da eta oraindik konpondu gabe dago.

Mankomunitateak oraingoz, «Bilketa itzulketa» sistema bat antolatu du hondakin arriskutsu bihurtzen diren produktuak saltzen dituzten establezimenduekin bat eginik. Esate baterako, automoziorako olio, pila eta botikekin.

Gainontzeko hondakin arriskutsuen tratamenduari buruz mankomunitateak ematen duen gomendioa, produktua bukatu arte erabiltzea da (ontziaren paretetan erantsita bakarrik gelditu beharko litzateke produktua), eta ondoren, gainontzeko zaborrekin batera jaurtitzea.

Gure etxeetan sortzen diren hondakin arriskutsu aipagarrienak honako hauek dira:



Etxeetako hondakin arriskutsuak.

- *Izurrite-aurkako produktoak*: fungizidak, intsektizidak...
- *Pinturak eta antzeko produktuak*: olio egindako esmalte edo pinturak, antioxidatzaileak, desgeruzatzaileak, tinta eta leungarriak,...
- *Automozio arloko produktuak*: olio labaintzaileak, antijelatzaileak, bateriak,...
- *Beste zenbait produktu*: pilak, botikak, lixiak, labe-garbikariak,...

VII. Pila-bilketa hautatua

Pilen berziklaketa dela eta ez dela sortu diren zalantzak medio, azken denboraldi honetan, pilak eguneroko berri bihurtu dira hedabideetan.

Pilek duten arazorik garrantzitsuenak, daukaten *merkurio* edukinak sortzen du batez ere eta maila txikiago batean, *kadmioak*. Metal astun hauek ingurugiroan eta gizakion osasunarengan eragin handia dute.

Merkurioaren kasuan, urarekin nahastean (euri ura, hezetasuna...), oso kutsagarria den metilmerkurio konposatua bihurtzen da. Zaborrekin batera isuriz gero, inguruneke lurra edo ura kutsatzen ditu. Metilmerkurio hori, izaki bizidunetara iristen da elikaduraren bidez. Kanporatzeko zailtasunak ditu, eta batetik bestera pasatzen da, elika katearen bidez.

Halere, pila guztietan, metal astunen edukina ez da berbera:

1. *Botoi-pilak*: mota askotakoak daude, baina, gehienetan merkuriozko botoi-pilak izaten dira. Hauek dira, hain zuzen ere, unitate bakoitzeko merkurio gehiena duten pilak. Botoi-pila hauek, doitasunezko kalkulatzeko makinek, ordulariek, argazki kamarek, audifonoek etab. erabiltzen dituzte.
2. *Pila alkalinoak*: merkurio edukina %0,1a baino txikiagoa da, batezbeste %0,06koa izanik.
3. *Pila azidoak*: *pila gatzun edota zink-ikatzeko pila* bezala ere ezagutzen dira. Lehenengo aldiz azaldu ziren pilak dira hauek. Ingurugiroan duten

eragin kutsatzailea askoz ere txikiagoa da, saltzen diren gainontzeko pilak baino askoz ere merkurio gutxiago baitute. Beraz, zaborrontzira lasai bota daitezke, ez baitute kutsadura arazorik sortzen. Pila alkalinoek baino merkurio gutxiago dute, batezbeste %0,02.

Aurrez aipatutako datu hauek EROSKI aldizkariaren 143.alean aurkitu daitezke, zenbait eredutako 25 pila elektrikoei egindako analisien arabera.

Orain bi urte egindako analisi horien arabera, pila alkalino eta azidoen unitate bakoitzeko edukin toxikoa botoi pilena baino askoz ere txikiagoa izan arren, kontuan hartu beharreko kopurua da, batez ere pila hauek, botoi pilak baino gehiago saltzen direlako.

Horrezaz gain, Europako Ekonomi Elkarteko 91/157 pila eta akumuladoreei buruzko xedapenaren arabera, 1993ko urtarrilaren 1-etik aurrera %0,025 merkurio-edukina duten mangesodun pila alkalinoen salmenta erabat debekatuta egon beharko du. Kopuru hori, 1990. urtean EROSKIko laborategian eginiko analisien arabera, zenbait pila elektrikok gainditu egiten zuen.

Horrela, egungo egoera erabat alderantzizkoa da. 1993ko Urtarrilean leian 91/157 xedapena indarrean sartu izanak, fabrikatzaileak inguruneari zor dioten errespetua kontuan hartuz beharturik daude. Hori dela eta, fabrikatzaileak «ohizko» pilak %0,025a baino merkurio gutxiago duten beste batzuekin ordezkatu behar izan dituzte. Zenbait kasutan %0,0ko merkurio kopurua dutenak ere fabrikatu dira, adibidez, pila berdeak.

4. *Nikel-kadmioko akumuladoreak*: pila birkargagarriak dira hauek, baina oso gutxi erabiltzen da pila mota hau. Merkuriorik ez eduki arren, pila hauek ere arriskutsuak dira, kadmio edukina %2koa baitute gutxi gora behera.
5. *Pila «berde» edo «ekologikoak»*: pila mota hau, orain dela gutxi hasi ziren saltzen. Bere merkurio edukina hutsa denez, ez dute kutsadura arazorik eragiten.

A. Botoi pilen bilketa hautatua

Sasieta mankomunitateak pilen bilketa hautatuari buruz, Gipuzkoako Foru Diputazioak eta Gurutze Gorriak sustatutako botoi pilak jasotzeko kanpainari laguntza ematea erabaki du.

Kanpaina honi 1994an eman zaio hasiera eta bilketaren ardura Gurutze Gorriaren esku gelditu da.

Mankomunitateko arduradunek, oraingoz, botoi pilak bakarrik biltzeko gomendioa egin dute. Botoi pilek duten merkurio edukina oso altua da, EEEko araudian onartutakoa baino 120 aldiz handiagoa den merkurio proportzioa dute. Beraz, honen izaera kutsatzaileak erabili ondoren hautaketa bidez biltzea eskatzen du.

Gainontzeko pila «arruntak», etxetako zaborrekin batera jaurtitzeak ez du gaur egun inolako kutsadura arazorik sortarazten, pila arruntaren merkurio edukina oso eskasa delako. Ikertzaileak, aztertzen ari dira merkurio hori tratatzeko, modurik egokiena zein izango litzatekeen.



Botoi-pilen bilketarako kaxa.

Honek planteatzen duen zalantza zera da: ordurarte, pila horiek jaso egin behar ote diren, ala alderantziz, oso maila urrian kutsagarriak direnez, ea etxeko beste zaborrekin jaurti ditzakegun.

Gipuzkoako Foru Diputazioak pila arrunten bilketarik ez egitea erabaki zuen eta Sasieta mankomunitatea ere iritzi berdinekoa da. Horien ustez, denbora luzean merkurio kopuru garrantzitsuak pilatuta edukitzea bera ere arriskutsua izan daiteke, beraz, oraingoz behintzat, botoi pilen bilketari bakarrik ekin zaio.

Kanpaina hau gauzatu ahal izateko Gipuzkoako Foru Diputazioak, botoi pilak saltzen dituzten dendetan, kaxa batzuk jarri ditu botoi pila erabiliak bertan sartzeko.

Kaxa horiek non jarri behar diren jakiteko, Foru-Diputazioak, Sasieta Mankomunitatearen arduradunen laguntza izan du, berek kanpainari hasiera eman aurretik, botoi pila horiek saltzen zituzten establezimenduen inbentario zehatza prestatu zutelako.

1993ko ekitaldian, Goierrin guztira 15.070 botoi-pila berreskuratu ziren, inbentariatutako eskualdeko 68 lekutatik jasota. Honek, 1.000 biztanleko 15 botoi-pila berreskuratzen direla esan nahi du.

Gipuzkoako Foru Diputazioak probintzia osoan jarri du martxan kanpaina hau. Botoi pilen bilketaz berriz, Gurutze Gorria arduratzen da, aurretik Diputazioarekin sinatuko hitzarmen baten bidez.

Eskualdeko botoi pila saltzaileen borondate ona ere eskertzekoa da, kanpaina honetan parte hartzea derrigorrezkoa ez den arren, guztiak prest agertu direlako.

VIII. Automoziarako olioien bilketa hautatua

A. Automoziarako olioien problematika

Olioia, erabilpen asko eta oso desberdinak ematen zaizkion lehengaia da. Olioia, automoziarako nahiz sukaldean jaki goxoak prestatzeko ere erabil daiteke. Horren arrazoia, osagai oso aldakordun lehengaia izatean dago.

Automozioan erabilitako olio gehienak, mineral jatorrikoak dira. Olio mineralak, petrolioan aurkitzen diren hidrokarburoen nahasketa baino ez dira.

Oinarritzko olioiei, labaintzaile gisa erabili behar badira, zenbait eranskin nahasten zaizkie. Aipagarrienak honako hauek dira:

- biskositate indizea hobetzen duten aditiboak.
- aditibo garbikariak eta barreiatzaileak.
- aditibo antioxidatzaileak.
- aditibo antijelatzaileak.

Olioetan konposatu arriskutsuak egotea, eranskin hauen baitan dago. Berez olioia, ez da lehengai arriskutsua, baina eranskin horiek gehitzen zaizkionean, bihurtzen da arriskutsu. Zenbait *metal astun*, esate baterako, *barioa*, *kromoa*, *zinka*, eta *beruna*, aditiboetan maiz azaltzen dira.

Gehienetan, automozioan erabilitako olioak, *besterik gabe isuri edota inongo kontrolik gabe erretzen dira*. Orokorki, erabilitako olioien eragin kutsagarri nagusienak honako hauek dira:

- Bere biodegradazioa oso txikia dela medio, lurra eta urak kutsatu, landare humusa desegin eta lurraren emankortasuna gutxitzen dute.
- Uraren gainean geruza mehe baten gisa zabaltzen dira, gas harremanak galerazi egiten dituzte eta urazpiko bizia akabatu egiten dute. Araztegien funtzionamenduan ere arazo larriak sortzen dituzte.
- Kontrolik gabe errez gero, olioek dituzten kloro, fosforo, berun etabarrek gas toxikoak sortzen dituzte.

Hondakin hauei buruz indarrean dagoen legeriak, erabilitako olio hauen kudeaketa egoki baten beharra jartzen du agerian.

B. Erabilitako olioien bilketa

Gure eskualdean erabilitako olioien bilketan, bi erakunde desberdinek hartzen dute parte. Alde batetik, autokonponketarako tailerrek eta beste aldetik, Sasieta mankomunitateak.

Sasieta mankomunitateak, ez du tailerretako bilketa sistemari inolako lehia desleialik planteatzeko asmorik. Tailerrak bilketa egitera iristen ez diren beste leku batzuetan, egingo du Sasieta mankomunitateak bilketa. Beraz, bien arteko lana osagarria dela esan genezake.

Orain arte erabilitako olioaren bilketa industrian, ibilgailuen tailerretan etab. egin ohi izan da.

Auto konponketarako tailerrek, erabilitako olioak jasotzeko edukinontzi be-reziak dauzkate. Edukinontzi horiek betetzen direnean, Eusko Jaurlaritzak baimenduriko biltzaile ofizialei egiten diete dei, eta haiek biltzen dute olio erabilia. Gero olio hori nora eraman eta zer egin behar den, biltzaile bakoitzaren esku dago.

Sasieta mankomunitateko arduradunen iritzian, sistema honek oraindaino ondo funtzionatzen du. Badira ordea, ahaztu behar ez liratekeen bi arlo garrantzitsu:

- Orain, automoziorako olioak, ia edozein supermerkatutan aurki daitezkeela.
- Herritar askok, beren ibilgailuko motorearen olioak, ohizko tailerretan aldatu ordez, berek aldatzea nahiago izaten dutela. Horregatik, azkenean olioak edozein tokitan isurtzen da, lurrean, estolderi-sarean...

Beraz, olio guzti horiek nolana isurtzeak, ingurugiroan, neurgaitzak diren kalteak eragin ditzakete. Hori dela eta, Sasieta mankomunitateak, bilketa zerbitzu berezia antolatzea ezinbestekotzat jo du.

Mankomunitatearen egitasmoa, etxebizitza jatorrizko olio mineral erabilien bilketa hautatua egiteko puntuak jartzea da. Momentuz, Ordiziako EROSKIIn dago kokatua olio bilketarako ontzi hauetako bakarra. Mankomunitateko arduradunen nahia da, automoziorako olioak saltzen duten eskualdeko merkatalgune haundiedienetan, gasolindegietan etab. bilketarako ontzi hauek ezartzea.

Gauza askorekin gertatzen den bezalaxe, edukinontzi horiek daukaten akats bakarra da, oso garestiak izatea da. Bakoitzak, 200.000 pta. balio du.

Mankomunitateak Ordiziako MAXI EROSKIekin sinatutako akordio bati esker, bertan jarri den olio edukinontzia bien artean erdibana finantzatua izan da. Euskal Herri osoan jarri den lehenengo edukinontzia izan da.

EROSKIren asmoa, Ordizian 6 hilabetetan zehar esperientzia pilotu hau martxan edukitzea da. Jendearen erantzunaren arabera, bere nahia beste MAXI EROSKI guztietan ere edukinontzi hauetakoak ezartzea litzateke.


Sasietak berriz, dagoeneko zenbait gasolindegirekin sinatu dituen hitzarmen batzuei esker, laster batean edukinontzi gehiago jarriko ditu.

Gasolindegietan jarriko diren edukinontzi horiek mankomunitatearenak izango dira eta bere ardura izango da edukinontzi horiek non kokatuta dauden herri-tarrei jakinaraztea.

Zerbitzu honen truke, gasolindegiek mankomunitateari, zenbat olio eta nork eraman duen adierazten duen ziurtagiria erakustera behartuta daude. Derrigorrezkoa da olio biltzaileak, Eusko Jaurlaritzak baimendurikoak izatea.

Sasieta arduratuko da gertutik kanpaina hau jarraitzen. Horrela jakingo da bilketa honek funtzionatzen duen ala ez.

Biltegietan erabilitako olioaren analisia eta aukeraketa egin ondoren, hiru ahalbide daude bere berreskurapenerako:



Ordiziako Maxi Eroskiko olio-edukinontzia.

- erabilitako olioa, zuzen-zuzenean erregai bezala berrerabiltzea (porlan-fabriketan, zentral termikoetan, petrolio-birfindegietan).
- erabilitako olioa, homologatutako erregaiak fabrikatzeko berrerabiltzea, fuel olioa fabrikatzeko adibidez.
- erabilitako olioaren berregintza, lehen birfintze prozesuko parekoa lortzeko.

Bestalde esan liteke ingurugiroaren aurka egiten diren ekintzek, kasu honetan olio isurketa, erakunde ofizialen aldetik ere erantzun gogorra izango dutela. Eusko Jaurlaritzaren «hirigintza eta Ingurugiro sailak», orain dela gutxi, automoziorako olio erabilia zelai batean botatzeagatik, pertsona bat santzionatu du, 50.000 pztako isunarekin. Beraz garbi dago bakarrik enpresak bakarrik ez direla hartuko gune kutxagarritzat. Pertsona bakarrek edo norbanakoak egin ditzaketen ekintza batzuk ere, ingurugiroarentzat kaltegarriak izan daitezke. Ekintza guzti horiei, kaltearen neurriko isuna ezarriko zaie.

IX. Jantzi eta trapu-bilketa hautatua

Zaborretako ehun-edukina oso txikia da. Batezbeste %1,5 eta %2 artekoa dela esan daiteke. Hauetatik erabilitako jantziek gehienez ere %1 jotzen dute.

Hiritar Hondakin Solidoen artean aurki daitezkeen ehunezko hondakinak (trapuak, erabilitako jantziak, etab.) bi eratan berzikla daitezke:

- Egoera onean dauden erabilitako jantziak, sailkatu eta garbitu ondoren, bigarren eskuko merkatuetan berrerabiltzea. Normalean, jantzi horietako gehienak beste estatu batzutura esportatzen dira, batez ere Afrika aldera.
- Industriadako zenbait produktu fabrikatzea, batez ere zapi industrialak.

Ehunezko hondakinen bilketa, noizbehinka zenbait bilketa-taldek egiten dute. Biltegizaleentzat trapu eta jantziak biltzen lan egiten duten berreskurapen taldeak dira hauek. Urte guztian zehar egiten da bilketa baina urtaro-aldaketa denean antzematen da bilketak areagotu egiten direla.

Jantziak bildu behar dituzten egun eta orduak, alde zuzenetik, etxetako atarrietan jartzen dituzten karteltxo batzuen bidez iragartzen dute talde hauek.

Normalean, herritarren erantzun maila ona izan arren, nere ustez, bilketa honek jendearengan nahiko susmo txarra sortzen du.

Jantzi eta trapuen bilketarako zerbitzu honek, ez du errespetatzen bilketarako egutegi eta maiztasun zehatz bat. Denboraldi luze batean bilketarik egin gabe egon ondoren, gero, hamabost eguneko epean bitan jarraian ere egin ohi izan dute zenbait kasutan.

Gainera, etxetako ateetan jartzen diren iragarkiak ez ditu sekula inork izenpetzen. Honek jendearengan zalantza sortzen du, askotan «hirugarren mundurako laguntza» edo «ahal duzunarekin lagundu» eskatzen duten gisa horretako mezuak gezurrezkoak direla pentsatzen dutelako.

Señoras:

Nota. Como en cada temporada les recordamos que pasaremos para recoger sus ropas usadas: de niños, de mayores, mantas, sábanas, zapatos, etc., para ayudar a las personas necesitadas. De antemano reciban la expresión de gratitud por su ayuda y colaboración.

**PARA FACILITAR LA RECOGIDA
LES ROGAMOS DEJEN SUS BOLSAS
DE ROPAS USADAS EN EL
PORTAL.**

RECOGIDA: MIERCOLES

(A partir de las 10 horas de la mañana, aunque llueva)



Bizitza tokatu zaigun gizartean, mota askotako jendea dago, batzuk krisiak eraginda eta besteak berriz krisiari etekina ateraz, atez ate eskean dabilen jende asko dago. Jantzi bilketaz nor arduratzen diren ez identifikatzeak jendearengan konfidantza falta sortarazten du. Orain arte jantzi bilketak erantzun ona izan badu ere, iritsiko da une bat, herritarrek beren buruei laguntza nori ematen ari ote diren galdetuko dietena eta orduan jantzi erabiliei eta trapuei beste irtenbide bat emango diete.



Atez-ateko erropa bilketa.

X. Altzari eta etxetako beste zenbait tresnaren probetxamendua

Etxeetako tresna elektriko, altzari, tresna zahar eta etxeko erabilerarako diren eta hondatu eta zahartu diren beste zenbait tresna bildu eta garraiatzeko zerbitzua, FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A. enpresak, Sasieta

mankomunitateari, 1993ko martxoaren 1etik aurrera eman beharreko Hiritar Hondakin Solidoen bilketa zerbitzuen artean, *derrigorrezko zerbitzu* bezala agertzen da.

Nahiz eta herritarrek ohizko zaborrekin batera telebista zahar bat atera zabor biltetarako puntura, zaborbiltzaileek bertan utziko dute jaso gabe.

Telebista zahar bat edo antzeko tresna bat erretiratzea nahi duenak, TELEFONOZ eman beharko die eskaera horren berri zerbitzu horren arduradunei eta ondoren etxetako hondakin arrunten alboan uztea nahikoa izango da. Hori bai, beti ere dagokien egunean eta orduan.

Zerbitzu honen maiztasun minimoa honako hau da:

- *astean behin*: Beasain, Ordizia, Lazkao, Zumarraga, Urretxu eta Legazpin.
- *15 egunean behin*: Ataun, Idiazabal, Legorreta, Olaberria, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia eta Zegaman.
- *hilean behin*: Altzaga, Arama, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Itsasondo, Mutiloa eta Zerainen.



Traste-zaharren bilketa.

Zaborteaira eramán ondoren tresna zahar horiei ondorengo irtenbidea ematen zaie:

- Tresna elektrikoak: inguruko txatar biltzaileek eramaten dituzte.
- Altzariak: orain, Urretxuko gazte talde bat arduratzen da horietaz. Hauek nahiko ondo daudenak konpondu egiten dituzte eta ondoren, saldu. Besteak berriz, zaborteagian gelditzen dira.

Bilketa honek ez dio mankomunitateari diru-irabazirik ekartzen, baina egunetik egunera gehiago dira erabiltzen ditugun eta zaborretara doazen altzariak eta tresna elektrikoak. Guzti hauek zaborteaira botatzeak, izugarritzko tokia hartzea lekarke eta zaborteagiaren bizi-iraupena nabarmenki murriztuko litzateke.

XI. Botika-bilketa hautatua

Iraungitako botikak ere, zaborretako beste osagai askok bezalaxe, beren toxikotasun kimiko eta biologikoa dela bide, tratamendu berezia eskatzen duten produktuak dira.

Botika-bilketa hautatuari dagokionez, Sasieta mankomunitateak, *Botiken bilketa / itzulketa* sistema bat jarri du martxan. Zerbitzu hau eskaini ahal izateko, botika-denden eta botika-banatzailen laguntza beharrezkoa izan da.



Botika-bilketarako edukinontzia.

Kanpaina honetan parte hartzea borondatezkoa da, baina botika-denda askok beren laguntza eman dutela esan behar da.

Edukinontzi hauek, hilean behin jasoko dira eta *bilketaren ardura*, *GUI-FARCO S.A (botika-banatzailea)* eta *Gipuzkoako Botikazaleen Elkarteak*, hartu dute.

Bilketa egin ondoren, Sasieta biltegiara ekarriko dituzte botika hauek, eta Sasieta arduradunek egin beharko dute hauen sailkapena.

Iraungi gabe dauden botikak eta oraindik erabilgarriak direnak, «hirugarren mundura» bidaliko dira eta jada beren balioa galdu dutenak, baldintzak betetzen dituen labe batean, erraustuko dira.

3. ZATIA - SASIETA MANKOMUNITATEA

I. Zaborteziaren kudeaketarako Mankomunitatearen sorrera

Zaborteziaren proiektua aurrera zihoala ikusita, Beasaingo udalean, zerbitzu horren kudeaketarako formula edo irtenbide egokiena zein izango ote den hasi ziren planteatzen. Kontuan hartu behar da nahiz eta zabortezia Beasaingo lurretan kokatuta egon, bere zerbitzuak Goierri eskualde osora zabaltzen direla.

Horrela, 1989ko Irailaren 30ean ospatu zen bilera baten ondoren, eskualdeko ordezkariak, beren kudeaketa aurrera eramateko formula egokiena mankomunitate baten sorrera izango zela erabaki zuten.

Mankomunitateek beren funtzionamenduari hasiera eman ahal izateko barne antolamendua beharrezkoa dutenez, estatutuen elaboraziorako prestakuntza egiten hasi ziren.



Beasaingo Udaletxea.

Guzti honen berri Beasaingo Udalak, Gipuzkoako Foru Diputazioari eman zion. 1988ko martxoaren 29an Foru Diputazioko Udal Harremanetarako departamentuak Beasaingo Udalera Estatutuen proiektua izango zenaren zirriborroa bidali zuen.

Zirriborro hori oinarritzat hartuta, mankomunitatea osatu nahi zuten udal-tako zinegotzien batzarrak, behin betiko estatutuak izango zirenen proiektua prestatu zuten.

Estatutuen zirriborro hori Beasaingo Udaletik eskualdeko beste udaletara bidali zuten, udalbatzen osoko bilkuretan aztertu ondoren erabakiak hartu eta alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Prozesu horren ondoren, Beasaingo Udalean behin-betikoak izango ziren estatutuen prestakuntzari ekin zitzaion. Horretarako beste udaletako erabakiak eta alegazioak ere kontuan hartu ziren.

Estatutu berriak hauek prestatu ondoren, berriz ere eskualdeko udaletara bidali ziren, osoko bilkuretan onetsiak izan zitezela.

1989ko abenduaren 1ean, udal guztietako osoko bilkurek beren onespina eman ondoren, estatutu horiek Gipuzkoako Foru Diputaziora bidali ziren, bertan onartuak izateko itxaropenarekin. Azkenik, 1990eko otsailaren 15ean, Foru Diputazioak, jakinerazpen berri bat bidali zuen Beasaingo Udalera.

Jakinerazpen berri horren bidez Beasaingo Udalarik jakitera eman zitzaion, alegia, Foru Diputazioak 1989ko urtarrilaren 23an egindako Diputatu Kontseiluaren bidez, «Zaborrak bildu eta tratatzeko» Goierriko mankomunitatea eratzeke alde zurretik egin beharreko izapideak formalki bete zirela erabaki zuen.

Beraz, alde zurretik egin beharreko izapideak bete eta mankomunitate baten eta bere estatutuen behin betiko sorrerarako gorenko erakunde formalen onespenez ez dela behar kontutan izanda, Foru Diputazioko Diputatu Kontseiluak zera erabaki zuen.

Lehenengoa: zabor eta hondakinen bilketa, garraio, tratamendu eta desegite-kudeaketarako, izapide guztiak formalki bete zituztela udalerririk.

Bigarrena: sortu berria den mankomunitatearen ordezkartzari «Eraketa-Aktarean» kopia eskatu Foru Aldundira bidaltzeko.

Horrela, 1990eko otsailaren 21ean onartu zen, «Sasieta mankomunitatea» izango zenaren «Eraketa Akta».

Mankomunitate honen helburua zabor eta hondakinen, bilketa, garraio, tratamendu eta desegite zerbitzua eskaintzea izango da. Zerbitzu hori eskaini ahal izateko beharrezkoak diren eraikin eta instalazioen eraikuntza ere bere ardurapean gelditzen da.

II. Sasieta Mankomunitatearen estatutuak

Sasieta mankomunitatearen estatutoak guztira 17 artikulua, Xedapen gehigarri bakarra eta Azken Xedapen batez osatuta daude.

I. KAPITULOAREN edukina, artikulua bakarra da, 1. art. Artikulu honek aurkezten digu, zein udalerririk osatzen duten Sasieta mankomunitatea: «Gipuzkoako Lurralde Historikoko Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Gaborria, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga».

Artikulu horren bigarren atalak dioen bezala, mankomunitate honen helburua, zaborbilketa hautatuaren zerbitzua eskaintzeaz gain, horretarako beharrezkoak diren eraikin eta instalazioen eraikuntza ere bere baitan hartzen ditu.

Erakunde honek, bere egoitza Beasaingo Udalean izango duela dio, 1.3. artikulua.

II. KAPITULUA, GOBERNU ETA ADMINISTRAZIOARI buruzkoa da. Guztira, 10 artikuluek osatzen dute kapitulu hau. Bertan, mankomunitatearen barneantolakuntza nola eratuta dagoen eta bere funtzionamendua nolakoa den zehazten da.

2. *ARTIKULUA*K, bere lehen atalean, Gobernu eta Administrazio organoak noren kargu dauden zehazten du:

- Batzorde Errektorea.
- Batzorde egikaritzalea edo Exekutiboa.
- Lehendakaria.
- Lehendakariordea.

Batzorde Errektorea, 5.000 biztanle baino gutxiagodun udalerrri bakoitzeko ordezkari batez eta 5.000 biztanle baino gehiagodun udalerrri bakoitzeko 2 ordezkari osatua dago. Guztiak ere, beraien Udaleko Osoko Batzarraldian izendatuak izango dira. Hauen agintealdia, udalbatzako partaidetza galtzarekin batera amaituko da.

Batzorde Errektoreak dituen *eskurantza* aipagarrienak ondorengo hauek dira: (3. art.)

- Estatutuen aldaketa.
- Amankomunitatea desegitea.
- Aurrekontuak eta beren aldaketak onestea.
- Amankomunitatea osatzen duten udalerriei kuotak ezartzea eta beroiek aldatzea.
- Plantilla, lanpostu-koadroa, pertsonala hautatzeko oinarriak, izendapenak eta beraien kontrataketa nahiz beren ordainketen finkamentua onartzea.
- ...

Batzorde Errektorearen bileretarako deialdia Lehendakariak egiten du hiru hilabeteen behin. Aparteko Batzarraldiak berriz, Lehendakariak deituta, Batzorde Errektoreko gutxienez laurden batek eskatuta edo eta Batzorde Errektore berak edo Batzorde Exekutiboak horrela eskatzen dutenean ospatzea derrigorrezkoa da (4. art.).

Batzarraldiak baliozkoak izateko, eskubidezko partaideen kopuruaren erdia gehi bat izatea derrigorrezkoa da. Nahitanahiezkoa izango da, Lehendakariaren asistentzia edo bere legezko ordezkaria, eta Idazkariarena edo bere ordezkaria (5.1. art.).

Erabakiak, bildutako partaideen gehiengo soilez onartuko dira, zenbait gai garrantzitsu salbu. Berdinketarik bada, batzarraldi berean errepikatuko da bozketak, baina berriz ere berdinketa errepikatuko balitz, Lehendakariaren kalitatezko botua erabakitzailea izango da (5.2. art.).

Estatutuen 6. *ARTIKULUA*k dioenaren arabera, Idazkaritza-funtzioak, Lehendakariaren Udalbatzako idazkariak beteko ditu. Hau dela eta, Sasietaoaren kasuan, Besaingo Udalari suertatu zaio idazkaritza lanak egitea.

Batzorde Egikaritzaila (7. art.), 5 ordezkarik osatuko dute, horietatik 2, Lehendakaria eta Lehendakariordea izango dira. Beti Beasaingo Udaleko ordezkariren bat egotea derrigorrezkoa da, bera delako Zabortegia kokatuta dagoen udalerria.

Bost ordezkarietatik, bat beti beasaindarra izan behar du eta gainerantzeko laurak, barruti hauetako bakoitzak hautatuak izango dira:

- Ataun, Ordizia eta Lazkao.
- Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Ezkio-Itsaso, Gabiria eta Ormaiztegi.
- Olaberria, Segura, Zegama, Zerain, Mutiloa eta Idiazabal.
- Zaldibia, Itsasondo, Legorreta, Gaintza eta Arama.

Batzorde Egikaritzaila gutxienez hilean behin bilduko da (*8.1. art.*). Batzorde honen *eskurantzak*, Batzorde Errektoreak eta Lehendakariak delegatzen dizkionak izango dira, baina bere eskurantzarik garrantzitsuena, Batzorde Errektoreak onartutako akordioak betearaztean datza (*9. art.*).

Sasieta mankomunitateko Lehendakaria, Beasaingo udalbatzaren ordezkarietako bat da. Lehendakariaren esku dago Mankomunitatearen ordezkaritza guztia. Bere ausentzi aldietarako, Lehendakariorde bat hautatuko da bere lana bete ahal izateko (*10 eta 11. art.*).

Estatutuen *III. KAPITULUAN, erregimen ekonomiko-finantzarioa* erregulatzen da. Mankomunitateak, urtero onartu beharko du bere aurrekontua, eta *12. artikulua* dio, zenbaki hoiien arabera antolatu beharko direla bere egitasmoak.

Mankomunitatearen *baliabide ekonomikoak*, ondorengoak izango dira (*13. art.*):

- Subentzioak, laguntzak eta emariak.
- Bere ondasun eta zerbitzuen errenta eta ekoizpenak.
- Zerbitzu prestakuntzagatik edo bere eskuduntzako iharduerak egiteagatik jasotako kuotak.
- Isunak.
- Kreditu-eragiketetatik etorriak.
- Osatzen duten udalerrien ekarpenak.

Mankomunitatea *14 artikulua* dioenez, bere sarrera propioen ekoizpenarekin finantzatuko da.

Mankomunitatearen sarrera garrantzitsuenetako bat, *osatzen duten udalerrien ekarpena* da.

Mankomunitatearen *iraupenari* buruz *IV. Kapitulu*ko, *15. artikulua*, bere iraupenaldia, mugagabea izango dela dio.

*V. eta VI. kapitulu*etan, *estatutuen aldaketa* eta *Mankomunitatearen desgite-prozesua* zehazten da.


Eta bukatzeko, bost ataletan sailkatuta dauden *XEDAPEN GEHIGARRIEK* eta *AZKEN XEDAPENAK* ematen diete amaiera estatutuei.

a. Mankomunitatearen eta Udalen arteko barne-funtzionamenduaren konparaketa

Konparaketa hau egin ahal izateko, alde batetik, *AFE* bezala ezagutzen den, «Herri Erakundeen Antolakuntza eta Funtzionamendurako Errelamendua» deritzon legeaz eta *Udalen Antolakuntzarako Oinarrizko Legeaz nahiz Testu Bate-*

ratuaz baliatuko gara. Beste aldetik berriz, *Sasietako Estatutuak* hartuko ditugu kontuan.

Mankomunitateko estatutoen 2.1 artikuluan bere Gobernua eta Administra-ritza zein organoren esku gelditzen den adierazten da. Artikulu horren edukina AFEen 35.2 artikuluekin eta OLko 20.1 arekin konparatzen baldin badugu, Udalaren eta mankomunitatearen barne-antolakuntza ia parekoa dela ikus daiteke:



Parekidetasun hau argiago ikusteko, bataren eta bestearen funtzio eta eskuduntzen arloa aztertuko dugu.

AFE-ren 41.artikuluan, alkateari ematen zaizkion eskuduntzak izendatzen dira. Batzuk aipatzearen, alkatearen eskuduntza izango da, Udalaren ordezkari-ritza, bere lehendakari-ritza, udalaren Gobernua eta Administra-ritza zuzentzea... eta antzeko beste zenbait.

Bestalde, ESTATUTUen 10. artikulura jotzen baldin badugu, konturatuko gara Mankomunitateko Lehendakariak antzeko eskuduntzak dituela: Mankomu-nitatea ordezkatu, erabakiak betearazi, Batzarraldietarako deialdiak egin...

Argi dago Udal bateko Alkatearen eskuduntzak Mankomunitatearen Lehen-dakariarenak baino gehiago direla. Nere ustez, horren arrazoi bakarra eskuran-tzetan oinarritzen da. Udal bateko alkateak, Mankomunitateko Lehendakariak baino askoz ere eskurantzak gehiago dauzka, gai gehiago garatu behar dituelako. Eskurantzak horiek maila baxuagoko erakunde baten organigraman isladatzen bal-din baditugu, antzekoak izango dira.



Ataungo Udaletxea.

Nik aurkitu ahal izan dudan desberdintasun bakarra, alkateordea, kasu batean, eta bestean lehendakariordea izendatzeko prozeduran dago. Hau ikusteko berriz ere AFE-ra eta Estatutueta joko dugu:

AFE-ren 41.3 artikulua zera dio, alkateak berak izendatzen dituela, alkateordea eta gobernu batzordeko kideak. Bestalde, Mankomunitatearen Estatutuen 2.4 artikulua zera dio, Lehendakariordea, Batzorde Errektoreak izendatuko duela. Beraz, organo hau udalaren antolakuntzan txertatuko bagenu, osoko bilkuran aukeratuko litzateke alkateordea.

Beste parekatze bat, Osoko Bilkuraren eta Batzorde Errektorearen artekoa da. AFE-ren 49. artikulua dioenez, osoko bilkura zinegotzi guztiek osatzen duten batzarra da. Estatutuen 2.2 artikularen arabera berriz, Batzorde Errektorea, udalako ordezkari-kopuru mugatu batez osatuko da. Nere iritziz, desberdintasun hau bere funtsean ez da bereizteko modukoa ere. Batzorde Errektoreko ordezkarien kopuruari muga bat jartzea logikak aginduta hartutako erabakia dela esan daiteke, izan ere beste modu batera batzorde honetan erabakiren bat hartzea ezinezkoa izango bailitzateke.

Batzorde Egikaritzaillearen eta Gobernu batzordearen arteko konparaketatik ondorioztatzen dena, aurreko bi organoen artekoaren berdina da.

Beraz, esan genezake barne antolakuntzari dagokionez, Udalaren eta Mankomunitatearen artean ez dagoela desberdintasun aipagarririk.

4. ZATIA - SASIETA MANKOMUNITATEAREN ZERBITZUEN KOSTUA

I. Sasieta Mankomunitateak emandako zerbitzuen kostu banaketa

Sasieta mankomunitatearen 1993ko aurrekontua, 272.484.000 pztakoa da. Nahiz eta itxura batean oso kantitate handia iruditu, mankomunitateak burutzen dituen ekintzen garrantzia kontutan hartuta ez dela horrenbestera konturatuko gara.

Ezin da ukatu mankomunitatea martxan jarri aurreko urteetan, zaborbilketa zerbitzua zerbait merkeagoa zela, baina pixka batean jartzen baldin bagara pentsatzen nolako baldintzetan egiten zen, bapatean konturatuko gara, nahiz eta hasiera batean zerbitzu garestia iruditu gerora begira ondo merezitako inbertsio baten aurrean gaudela.

Sasieta mankomunitateak emandako zerbitzuen kostu banaketa modo honetara egiten da:

Mankomunitatearen diru-iturriak hiru dira:

- Partaide diren udalerrien kuotak.
- Partikularrek zenbait zerbitzuren truke egindako ordainketak.
- Erakundeen diru-laguntzak.

Diru-iturri hauen %85a, udalerrien ekarpenetatik etortzen da eta gainontze-koek %15 estaltzen dute.

Sasieta mankomunitateko estatutuen 14.2 artikuluan adierazten denaren arabera, Udalerri bakoitzak mankomunitateari ordaindu beharreko urteko kanona, kostu finko eta kostu aldakor deiturikoen baturaren emaitza da.

Kostu finkoak, biztanle-kopuruaren proportzioan ordaintzen dira. Zehaztasunez jakiteko biztanle-kopurua zenbatekoa den jakiteko biztanle-kopurua, Udaleko biztanle-erroalda hartzen da kontutan.

Kostu aldakorrak, udalerri bakoitzak jasotzen duen zerbitzu-mailaren eta hau burutzeko zailtasunaren arabera izaten dira.

Udalerriek Sasieta mankomunitateari, ondorengo zerbitzu hauek eskaintzearen truke ordaintzen diote.

1. Hiritar hondakin solidoen bilketa garraiaketa eta tratamendu-zerbitzua

Hondakinen bilketa, garraiaketa eta tratamendu-zerbitzuaren truke, mankomunitateak FCC enpresa emakidadunari, urteko kanon bat ordaintzen dio. Kanon hori, prezioen berrikuspenaren arabera eguneratzen da.



Hondakinen jaurtiketa isurketa-eremuan.

Kanon horri aurre egiteko, Udalerri bakoitzak egin beharreko ekarpena zenbatekoa den jakiteko, kostu finko eta kostu aldakorretan zatitzen da zenbaki hau. Gero, kostu hauen arabera jakingo da herri bakoitzari dagokion zenbatekoa.

Kostu finkoen barnean, ondorengo atal hauek bereizten dira:

- *Urteko amortizazioa*, (ibilgailuak, irradi-sistema, garbiketako makinarena...)
- *Urteko beste zenbait gastu* (ibilgailuen aseguru eta zirkulazio-zergak, instalazioen alokairua, ura, telefonoa...)
- *Finantzaketa-gastuak*.
- *Gastu orokorrak*.
- *Mozkin industrialak*.
- *Zergak %6ko BEZ*.

Urteko amortizazioak izenaeko atalak, aipamen berezia merezi du. Mankomunitateak, FCC-rekin sinatutako kontratuaren arabera, zerbitzua martxan jartzeko beharrezkoa den tresneria erostearen ardura berea du, ibilgailuak, garbiketako makina..., FCC-k baliotan ezarritako dirua, urtez urte mankomunitateak egiten dizkion ekarpenen bidez eskuratuko du. Ordainketa horien truke, mankomunitateak, tresneria guzti horren jabetza lortuko du.

Kostu aldakorrak, atal honek, *pertsonal-kostuak eta mantenimendu eta kontserbazio-kostuak*, barnebiltzen ditu.

Kostu hau banaketa-formula baten bidez kalkulatzen da:

$$K_U = K_A \times P_K$$

K_U = Udalerri bakoitzari dagokion kanona.

K_A = Kostu aldakorrak guztira.

P_K = Udalerri bakoitzak kostu aldakorretan duenpartaidetza-koefizientea. Koefiziente hau, udalerri bakoitzean zabor-bilketa arrunta burutzeko behar den denboraren arabera da.

Egun, Sasieta mankomunitatearen pertsonal laborala 4 lagunek osatzen dute: Mankomunitateko kudeatzaile zerbitziburua; ingurugiro teknikaria; makina-gidaria; eta pisatzailea.

Makina gidaria, besteak beste, zabortegian jasotzen diren hondakinak zabalteaz, estaltzeaz eta trinkotzeaz arduratzen da.

Pisatzailearen betebeharrak garrantzitsuena berriz, zabortegi eremura in-
guratzen diren pertsona eta ibilgailuen sarrera-irteeren kontrola da.

Mankomunitatearen kudatzaile zerbitzuburuak eta Inguruguro teknikariak, eguneroko zabortegiaren funtzionamendu eraginkorraren koordinazioaz gain, berek antolatu dituzten berziklapen programen ardura dute eta egunez-egun sortzen diren beste hainbat arazoei irtenbidea ematea.

Ez dugu ahaztu behar zabor-bilketaren ardura FCC enpresak duela. Enpresa honek bere eginkizunak bete ahal izateko 22 langilke eta baliabide mekaniko ugari ditu.

2. *Edukinontzien instalazio, garbiketa, desinfekzio, mantenimendu eta birjarpena*

Zerbitzu honen ordainketarako kanona ere, urtez urte berrikusten da.

Udalerrri bakoitzak mankomunitateari ordaindu beharreko kopurua kalkulatzeko, urteko kanona bi ataletan banatzen da:

— Alde batetik, zenbait *inbertsioren amortizazio eta finantzaketa-kostua*:

- Edukinontzi berriak.
- Zerbitzu orokorrak.

— Jarritako edukinontzi guztien, *garbiketa, desinfekzio, mantenimendu eta birjarpena*.

Udalerrri batek edukinontzi berriak jartzea erabakitzen duen kasuan, instalaturik dituen edukinontzi berrietako litroen proportzioan ordaintzen du.

Edukinontzi guzti horien garbiketa, desinfekzio eta mantenimendua, udalerrri bakoitzean dauden litro-kopuruaren proportzioan ordaintzen da. Kontutan hartu behar da, edukin-ontzien edukina litrotan neurtzen dela.

3. *Bilketa bereiztua*

Bilketa mota hau egiteko lortzen diren diru laguntzak nahiko garrantzitsuak izaten direnez, gainontzekoaren zenbatekoa, biztanle-kopuruaren proportzioan ordaintzen da.

ONDORIOAK

Lan hau egiten hasi aurretik, ez nuen inoiz pentsatuko «zaborrek», egunero gure etxetan pilatu ohi ditugunek, hainbeste zeresan sortuko zutenik.

Sasieta Zabortegei kontrolatuak bere zerbitzuak eskaini aurretik, Udal ba-koitza arduratzen zen zaborren bilketa eta tratamendua ahal zen moduan antolatzeaz. Gauza jakina da, zerbitzu horiek, nahiz eta borondaterik onena jarri, ez zirela guztiz ondo egiten. Zabortegei kontrolatuaren sorrerarekin, denok irabazi dugula esango nuke, bai eskuldeko herritarrek eta baita inguruneak ere.

Ez dut uste ausardia handiegia izango denik pentsatzea, herritarrak, zabor-bilketaren inguruan sortu diren ekintza guztietatik, gehien estimatu duena, berziklaketa-egitasmoak martxan jartzea izan dela.

Egungo bizimoldearen eraginez, egunetik egunera gure etxetan zabor kopuru handiagoak sortzen zaizkigu. Guzti hauetatik asko, bilketa hautatu bat eginez berreskuragarriak dira.

Honen berri, oso ondo daki herritarrak eta hau oso garbi antzematen da berziklaketa-kanpainei emandako erantzunak ikusi ondoren.

Datu hauen arabera, oraindik zer ikasia badaukagula ondorioztatzen da, baina pixkanaka-pixkanaka zenbakiak goraka doaz, eta horrek, bilketa hautaturako ohitura bat hartzen ari garela esan nahi du.

Hala eta guztiz ere, nere iritziz, herritarrei zuzenduriko berziklaketarako informazio eta kontzientziazio kanpainari ez litzaioke bukaerarik eman behar. Norbaitek zirikatzen gaituen bitartean hau ala bestea egiteko, nahiko erantzun-maila polita lor daiteke herritarrengandik, bestela, ohitura hauek laster ahazten dira.

Nere ustez, benetan txalogarria da Sasietako arduradunak egiten ari diren lana, baina erantzun hauen fruituak jasotzeko, behar-beharrezkoa da guztion laguntza. Guri ezer eskatzen ez digun ekintza bat egitea, inguruneak asko eskertuko digu.

Mankomunitateak antolaturiko ekintza hauek, gizarte aurrerakoi jotzen den batean derrigorrezkoak dira. Ekintza hauetaz apustua egitea, etorkizunaz apostu egitea da, bestela gure ondorengoek jasango baitute gure axolagabekeria.

BIBLIOGRAFIA

Erabilitako materiala:

- Beasaingo Udaleko idazkaritzako datuak, Sasieta mankomunitateari buruz.
- Sasieta Mankomunitatearen estatutuak.
- Bilketa Hautatu eta Berziklapen-egitasmoaren zirriborria.
- Udal antolakuntzari buruzko legeak: OL, TB, eta AFE Erreglamendua.

Liburuak:

- FRANCISCO SOSA WAGNER, *Manual de Derecho Local*. Edit. Tecnos (2.^a edición).

Argazkien egilea:

- Santi Etxeberria.

